

GUaiXe.eus



Mazkiaranek bizikleta zintzilikatu du



Kirolak >> 11

Lakuntzak San Saastin festak bi txandetan ospatuko ditu: astearte-asteazkenean eta ostiral-larunbatean. Olaztik asteazkenean ospatuko du



Sakanerria >> 6



Sakanan biztanleak galdu ditugu

>>7

Enpresariak Aierdirekin elkartu ziren

Lehendakari-ordeari industria arloan Sakanak dituen premiak jakinarazi zizkioten

>>5

Dordoka elkartean boluntario

Garun paralisia duten pertsonen kirola praktika dezaten laguntzen dute

>>3

Mendia omentzeko auzolan deialdia

>>3

Etxeberriaren narrazioari epaimahaiaren aipamena

>>15

GOIERRIKO CAMPUSA

URTARRILAK 21

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

MARTXOAK 12

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

MAIATZAK 19

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Unai ZORIONAK, Unai!! 5 urte!! Urdiango mutillarik politenari, muxu asko familiaren partez!!



Sukari ZORIONAK zalamera! Gaur bi urte jaio zinela. Ongi pasa eguna. Asko maite zaitugu.



Ione ZORIONAK!! Beti zurekin, ondo pasa, muxuk.



Aingeru ZORIONAK maitia, asko maite zaitugu, aita, ama eta Unaxeren partez.



Ekain Amillano ZORIONAK pitxurri!! A ze gustora yondu ginen!!



Ondatz Reparaz Anabitarte ZORIONAK Ondatz!!! Bost urte!! Aitona eta amonaren partez muxu pila.



Uxuri ZORIONAK zure Altsasuko lehengusuen partez. Muxu handi bat.



Uxuri Fortuna Anso Bihar gu etxeko txikiyenak bi urte betetzen ttu. ZORIONAK aitaxo, amatxo eta Jaren partez, muxu pilo bat eta ondo pasa.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€

ilbeltzak

15-21

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

4nek. Ilbeltzaren 15ean, ostiralean, 22:30ean Lakuntzako kultur etxean.

Zigor Kaos y Los Etilikos eta Ingo al deu. Ilbeltzaren 16an, larunbatean, 23:30ean Iturmendiko gaztetxean.

Izeberg. Ilbeltzaren 16an, larunbatean, Olatzagutiko gaztetxean.

Antzerkia

Pluton: hor konpon marianton! Ilbeltzaren 16an, larunbatean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Antzerki Trup.**

Kibuku. Ilbeltzaren 17an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Marie de Jongh / Tartean.**

Bakarrizketa

Moskis. Ilbeltzaren 15ean, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiako Barandi tabernan.

Dokumentalak

Gure kabuz ala hil. Ilbeltzaren 15ean, larunbatean, 18:00etan Altsasuko gaztetxean.

Zinema

Taxi Teherán. Ilbeltzaren 15ean, ostiralean, 21:45ean eta ilbeltzaren 17an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Star wars. El despertar de la fuerza. Ilbeltzaren 15ean, ostiralean, 22:00etan eta ilbeltzaren 17an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

La novia. Ilbeltzaren 21ean, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Erakusketak

Jose Maria Urabaien. In Memoriam. Ilbeltzaren 28ra arte, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Hitzaldiak

La gamazada. Protesta foral de Navarra. Ilbeltzaren 15ean, ostiralean, 19:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **Hizlaria: Maria del Mar Larraza, Nafarroako Unibertsitateko historia garaikideko irakaslea.**



4nek taldea gaur Lakuntzan ariko da.

Tailerrak

Txokolate eta bizkotxo. Ilbeltzaren 15ean, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Aarrantza aparailuak. Ilbeltzaren 16an eta 17an, larunbatean eta domekan, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Independentisten topaketa irekia. Ilbeltzaren 16an, larunbatean, 10:00etan Lakuntzako kultur etxean.

Ximona gaztetearen urteurrena. Ilbeltzaren 16an, larunbatean,

12:00etatik aurrera Iturmendin.

Elikadura osagarria haur bakoitzaren neurria. Ilbeltzaren 20an, asteazkenean, 18:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Familiarteko topaketa. Amalur elkarte.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 15ean, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 17an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Uharte Arakil

Neska-mutil sukaldariak

Urtea despeditzeko hiru egun falta zirela, 22 neska-mutil uhartear sukaldaritzatailerrean elkartu ziren. Javi Trapero irakaslearekin, denon artean menua prestatu zuten patata minez, hostopilez, krepez, pizzaz, hamburgesez, turroizko tartaz eta alkoholik gabeko koktelaz osatuta. Dena beraiek egina. Aralar Mendi elkartearen eman zuten arratsaldea. Taldeetan banatu ziren menua prestatu ahal izateko. Halakoetan ohikoenez, prestatutakoarekin afaria egin zuten. Irurtzun aldeko Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak ikastaroa Uhartear Arakilgo Udalaren eta Aralar Mendi elkartearen laguntzaz antolatua zuen.



Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

• Lakuntzako danborrada

• Agenda

• Albisteak

107.3 FM
beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE

ONCEK 350.000 € BANATU ZITUEN: ONCE-ren abenduaren 29ko zozketak 350.000 euro utzi zituen Altsasun. San Joan kaleko kioskoan Francisco Javier Ezkerra Azpi-

tartek zenbaki sarituko (26.040, 009) hamar kupoi saldu zituen eta haren jabe direnek 35.000na euro eskuratu dituzte.

ezkaatza >>

>> Etxarri Aranatz

Kirola denontzako delako onuragarri

Garun paralisia dutenekin aritzen dira Patxi Urrestarazu eta Naroa Araña. Aspace zentroan Dordoka kirol elkartearen boluntario aritzen dira biak

Maialen Huarte Arano

Donostian du egoitza Dordoka Kirol Elkarteak. Bertan aritzen dira boluntario Patxi Urrestarazu eta Naroa Araña etxarriarrak. Garun paralisia dute Dordoka elkartearen kirola egiten dabiltzanek. Hori baina, ez da muga bat. Kirola denondako onuragarria delako, zailtasun gehigarriak dituztenei kirola egokitzea da Dordokaren eta bertan aritzen diren boluntarioen erronka. 1992tik ari dira lanean kirol elkarte horretan, eta estatu mailan kirol egokitua aurrera eraman zuen lehenengo taldeetako bat ere izan da.

Boccia, slaloma, igeriketa, atletismoa edota txirrindularitzak indar handia dute Dordokako erabiltzaileen artean. Duela 25 urte hasi zen boluntario gisa Urrestarazu. Hasieran, Aspacek Iruñean zuen egoitzan izan zen eta zenbait urteetako geldialdiaren ondoren, Donostian ekin zion ibilbideari duela zazpi bat urte, Dordokan. Araña, berriz, ikaslea da. Donostiako unibertsitatean egiten ditu ikasketak eta joan den urtean ekin zion boluntario izateari. Orduetik, kontent da esperientziarekin. Urrestarazu, hain zuzen, boccia kirolarekin aritzen da boluntario. Garun paralisia dute kirol horretan parte hartzen dutenek eta bakoitzaren gaixotasun mailaren arabera egokitu egiten da kirola. Batzuk ez dute inongo arazorik boccia pilotajaurtitzeko. Besteek, eskuekin jaurti dezakete baina laguntza behar izaten dute eta gainerakoek, kanaleta baten laguntza izaten dute. Mugak-muga eta zailtasunak zailtasun, parte hartzea eta elkarren artean txa-

pelketak antolatzea izaten dute xede. Espainiako txapelketetan ere parte hartzen dute eta Dordoka elkartearen Donostian izanagatik ere, hiriburu desberdinetan aritzen dira jokoan.

Slalomak ere arrakasta handia du. Naroa Araña aritzen da kirol horretan parte hartzen dutenekin. Donostian ikasten ari da Araña eta astean behin lastailaz geroztik Dordokara joaten da boluntario gisa. "Ez nuen kirola maila horretan ezagutzen baina oso interesgarria da, asko disfrutatzen dute", azaldu du. Gurpildun aulkian aritzen dira lehian. Zirkuituak dituzte eta tarteka oztopoekin egiten dute topo. Ibilbidean topatzen dituzten piboteak gainditu behar dituzte eta ahalik eta denbora gutxienean. Oztoporen bat botaz gero, edo behar bezala gaintzen ez bada, denbora-zigorra ezartzen zaio partaideari, eta batzuetan ere kanporatua izaten da. "Lehia bi kirolariren artean sortzen denean tentsio handiz aritzen dira nork irabaziko", azaldu du Araña. 1992an hasi zen slaloma gurpil-aulkian ezagutzen eta hain zuzen ere Aspace Gipuzkoak lehen taldea sortu zuen. Orduetik beste autonomia erkidegoetara zabalitzen hasi zen, eta hala, 1993an Espainiako aurreneko txapelketa antolatu zen.

Boluntarioen lana, ezinbestekoa

Egokitutako kirola da Dordoka Kirol Elkartearen eskaintzen duena. Garun paralisia izanda, boluntarioen laguntza behar izaten dute kirola praktikatzeko unean. "Gure laguntzarik gabe jende askok ez luke aukerarik izan kirola egiteko", azaldu dute Urrestarazuk eta Arañak. Euren ekarpenak Dordokan parte hartzen



Patxi Urrestarazu eta Naroa Araña, Dordoka elkartearen boluntario etxarriarrak.

dutenen garapena laguntzen du. "Esfortzu handia egiten dute eta asko baloratzen dute gure laguntza", nabarmendu dute. Jakinda boluntarioen laguntzarik gabe ezin izanen luketela kirol egiten "ase" egiten ditu Urrestarazu eta Araña. "Bizitzaren beste ikuspegi bat izaten dute garun paralisia duten pertsona hauek eta guri transmititzen digute, beste modu batean egin daitekeela aurrera", diote. Astean behin izaten dira Dordokan boluntario. Txapelketak egiten direnean, gehiagotan ere izaten dira beraiekin.

Kirol jardunean guztira 6 boluntario aritzen dira Dordokan. Boccia eta slalomaz aparte atletismoa, pisu jaurtiketa, igeriketa eta bes-telakoak ere egiten dituzte.

Norberaren gaitasunari egokitua

Garun paralisia izatea ez da muga izan Dordokako kideendako. Norberaren gaitasunaren arabera moldatu dute kirola. Garun paralisia sor dezakeen gaitasun ezaren arabera moldatu dituzte. Lehen mailako garun paralisia dutenek, esaterako, oso mugatuak dituzte eskuetako mugikortasunak, adibidez. Hortaz, boccian aritzeko eta pilota jaurti ahal izateko behar duten laguntza eskaintzen diete boluntarioek. Bigarren mailako garun paralisia dutenek abilitate gehiago dute eskuetan eta ia euren kabuz aritzen dira boccian. Hirugarren mailakoek ezin dituzte euren eskuak erabili eta kanaleta baten laguntzarekin jaurtitzeko

dute pilota: "askotan garun paralisia fisikoki eragiten die baina baita psikikoki ere". Zailtasun gehien dutenekin, keinuz aritzen dira elkar ulertu eta pilota jaurti ahal izateko: "kanaleta non kokatu eta zenbateko indarraz jaurti behar den keinuz adierazten digute, gero jaurti ahal izateko", azaldu du Urrestarazuk.

Ez da denbora pasa bat bakarrik. Kirola egitea gustatzen zaie eta praktikatzeko gainera txapelketetan ere parte hartzen dute. Erkidegoen artean estatu mailan aritzen dira lehian. Harremana sustatzen da kirolariren artean eta bidaiatzeko aukera ere sortzen zaie. Euren erakusten dute, kirola denondako dela onuragarria eta denok direla gai praktikatzeko.

>> Unanu / Arbizu / Olatzagutia



Hiru gaztandegiri esker ona

Nazioarteko lehiaketetan saria lortu duten Idiazabal jatorri izendapeneko gaztagileak Ordiziako eguberrietako aparteko azokan elkartzu ziren, abenduaren 30ean. Idiazabal Gazta Jatorri Izendapenak saritutako gaztagileei esker ona azaltzeko ekitaldia antolatu zuen. Joan den urtean 22 gaztandegik 31 domina lortu zituzten,

"beste urte batez, Idiazabal gaztak arrakasta izugarria lortu du nazioartean, munduko onenen artean kokatuz". Izendapenaren esker ona jaso zuten artean daude Unanuko Balda-Artola, Arbizuko Araña Etayo eta Olatzagutiako La Vasco Navarra. Hiru ere Birminghamo World Cheese Awards lehiaketan lortu zituzten sariak.

SAKANA

Auzolana, Benigno omentzeko

Apirilean antolatu nahi dute eta auzolanerako bi deialdi egin dituzte

Benigno Mendia Goikoetxea urdiaindar ezaguna lastaila erdialdean hil zen. Orduetik bere gertukoek eta lagunek zerbait egitea izan dute buruan. Horri, dagoeneko, "izena eta data jarri" diote: ongi merezitako omenaldia. Hainbatsakandar biltzen dituen Benignoren Lagunak taldeak jakinarazi dutenez, Mendiari omenaldia apirila erdialdean egin nahi diote, Urdiainen, egun osoko egitarau batekin. Prestaketa lanetan hasiak dira.

Antolatzaileek azaldu digutenez, "jakin badakigu, Benigno

han eta hemen ibili dela, beti ere auzolanean, hori baitzen bere eguneroko lana eta jana: auzolana". Benignoren Lagunak taldeak, horregatik, auzolanean antolatu nahi du harendako omenaldia. Eta bi deialdi egin dituzte. Alde batetik, argazki bilketa egin nahi dute, gero omenaldi egunean emateko. Bakarren batek ekarpena egin nahi badu benignolagunak@gmail.com helbidera bidali dezake argazkia. Bestetik, antolatzaileek "Sakanako talde, eragile zein norbanakoak auzolan erraldoi honetan parte hartzea ere gonbidatu" nahi dituz-



te. Haiekin harremanetan jartzeko aipatu e-posta helbide bera erabili daiteke.



Ilusioa

Oihane Andueza Imirizaldu

astekoa

Gabonak pasa berri direla atzera egiten dut begirada eta hitz batez laburtu beharko banitu egun horiek, ilusioa esangonuke. Umeak Olentzerok eta erregeek ekarriko dituzten oparien zain, beste batzuk urrutiko familia ikusteko desiotan, besteak urte berriak zer opa dien irrika bizian, beste hainbat loteria tokatzeko amorraturik...

Jakin badakit goiko lerroetan ikono edota estereotipoetan gutiz erori naizela eta seguru asko kristau kutsuan ere, baina nahiz eta egia osoa ez izan, modu parzial batean betetzen delakoan eskua sutan jarriko nuke.

Gabonak pasa dira eta zer? Lote-

ria ez zaigu tokatu eta oparietako batzuk aldatu ditugu, familia eta lagunak ikusi ditugu eta alde egin dute. Zorroa ederki beterik eta kilo pare bat gehiagorekin agur gure ilusio guztia 2016ko abendura arte. Umeen Olentzerorekiko lilura eta maitasun horrek dirau oraindik.

Duela zazpi bat urte inauterietan maitagarri moztu nintzen neronek egindako jantzi batekin. Soinean gona lila eta distiratsua eta kamiseta arrosa bati josita, kotoiez egindako hegalk; eskuan barita bat, orkidea baten loreontzitik hartutako egurrezko makila berde fin bat, puntan kartulina arrosa eta purpurinaz

egindako izarra zuela. Maitagarri nahiko "kaxeroa", beti ere maitagarri.

Egoerak ogia erostera moztu nintzen joatera eraman ninduen. Egurdiko ordu biak ziren eta sei bat pertsona baginen errenkadan zain. Ni zeharka begira aldeetara jende ezaguna ez topatzeko desiotan, lotsatu antza.

Nire txanda iritsi zenean ezaguna nuen ogi saltzailea txantxetan hasi zen, "desio bat eska diezazuket?" "Noski!" nik, esan orduko damaturik. Hori entzun bezain laster beste bi ogi saltzaileak hurbildu eta haiek ere desioa eskatu nahi zutelara, beraz, goizean umeekin egin nuen beza-

la araoa bota nien banan-banan: "eguzkiaren beroa, haizearen abiadura, lurraren boterea eta uraren indarrak zure desioa betetzen lagun zaitzala!" eta purpurina eta kartulina arrosaz egindako izar baritarekin kolpetxo ematen nion kaskoan. "Hori bai, desioa betetzea nahi baduzu, oheratu aurretik gogora ekar ezazu". Horrela hirutan, ogi saltzaile banakin eta lotsak eta egoeraren surrealismoak jota parrez lehertzen atera nintzen okindigitik.

Handik aste batera ogia erostera berriro joan eta hara nire sorpresa bertan zeuden hiru saltzaileetako bik desioa bete zitzaie-

esan zidatenean! Irrikak, ilusioak bete ninduen momentuan.

Hirugarrenarekin kalean topo egin nuen eta lehenengo gauza galdetu nion: "bete al zitzaizun desioa?" "Ez, badakizu zergatik? Gauean gogoratzea ahaztu zitzaidalako."

Mantendu dezagun irrika, ilusioa gainontzeko urtean ere. Umeek hala egiten dute eta gu baino zoriontsuagoak direla esatera ausartuko nintzateke. Olentzerok, loteriak, turroiak, aspaldiko lagun eta familiar tekoez gain, guk ere badugu ilusioa izan eta desioak betetzeko gaitasuna. Mozorroa jantzi eta sinestea besterik ez dugu egin behar.

barrutik kanpora

Urte berri on

Urte berriaren oihartzuna oraindik isildu gabe dagoenez, Sakanako jubilatuek eta pentsionistek gutzietan urte berri on. Urte berri oparoa izan dezagula. Ez dakit nahi izatea nahikoa den urtean zehar lortu nahi duguna lortzeko, beharbada ez, baina, nahiak behintzat, ez dezala hutsik egin.

Dena den, bada urte oparoa zapuzteko ahaleginetan dabile-

nik. Ez dira lasaigarriak urte zahar bezperan iritsi zitzaizkigun berriak. Gobernuak tematiz jarraitzen du berearekin eta lotsagarria izan arren eta krisitik ateratzen ari garela esan arren, gure pentsioak %0,25 bakarrik igoko dira, hau da, hilabeteko 2 edo 3 gehiago. LOTSAGARRIA.

Behin eta berriz kexu agertu ginen irizpide honekin, gure pen-

tsioendako kaltegarria izango zela ikusten genuen, eta hala izan da. Ez ginen isildu, saiatu ginen bere denboran jubilatuen nahigabea kaleratu eta erabaki anker honi aurre egiten, baina ez genuen agintariekin biguntzeko adina erantzunik jaso. Hortaz gure konformismoak ere izan dezake zer ikusirik.

Hala ere, urte berri honi baikor

begiratzeko arrazoirik badago. Jubilatuen arloan gero eta mugimendu gehiago ikusten da: gure eskubideak aldarrikatzeko prest dagoen jubilatuek kopurua igotzen ari da, gure antolakuntza gorpuzten ari da, Euskal Herriaren herrialde ezberdinetako taldeak elkarlanean hasi gara, martxan ezarri diren asmo eta proposamen interesgarriak baditugu. Propo-

samen hauek zehazteko aukerarik ez zait gelditzen gaur; hurrengoan aurkeztu beharko ditut, baina zuen laguntza eta babesa izan nahiko genuke.

Behartu dezagun urte berria guretzat ONA izaten. Urte berri on.

Sasoia

hara zer dien

Trastorno bipolarraz

Osasun mentalaren definizioan "ingurugiroarekin egokitzapena" "oreka mentala", "barne eta kanpokoko gatazkei irtenbide zuzena emateko gaitasuna" eta antzeko hitz eta esaldiak topatzen ditugu. Osasunaren Mundu Erakundeak dioenez, "ez soilik gaitzik edo urritasunik eza, baizik eta osoko ongizate sozialaren, mentalaren eta fisikoaren edukiera" da osasun mentala.

Osasun mentalak berezko gai-

xotasunak ditu, denek ezagutzen ditugu, inguruko pertsonen pairatzen dituztelako edo liburu edo pelikuletan ikusita. Uste dugun baino pertsona gehiagok pairatzen dituzte gaixotasun mentalak gure gizartean, era askotakoak gainera: depresioak, fobiak, menpekotasunak (jokoa, drogak, erosketak, janariarekin zerikusia dutenak...), paranoiak, eskizofreniak...

Sergio Saldaña 40 urteko gazte

nafarrak "Tengo trastorno bipolar" liburu idatzi zuen orain hiru urte. Bertan, oso modu arinean eta era ulergarrian bere historia kontatzen digu, gaixotasunari lotuta dauden bere bizipenak, inongo dramatismoz gabe, gaixotasunari nola egin dion aurre urte guzti hauetan, familia, lagunak, umore aldaketak, botikak, ospitaleak eta abar.

Azaltzen duenez, bere prozesuan faltan hartu zuen informa-

zioa izatea, gaitza berbera zuten pertsonen bizipenen informazioa, eta hori izan zen liburu hau idazteko arrazoi bat, hutsune bat betetzeko eta beste norbaitentzat erabilgarria izan dadin, bai gaixo bai ingurukoentzat. Berak 20 urterekin irakurri nahi izango zukeen liburu idatzi duela dio. Lortu nahi duena ere, nolabait, gaitza desmitifikatzea da, eta duen estigma kentzea; gizartean ez da gehiegi buruko gaixotasu-

nez hitz egiten, tabu antzeko bat da, ez dago normalizaziorik.

Oso erraz irakurtzen den liburu da, 76 orrikoa, hitz potolorik erabiltzen ez duena, denentzat ulergarria dena eta gaixotasunera hurbiltzeko modu ona. Erosi edo bestela herriko liburutegietan ere badugu liburu hau. Sergiok ere blog bat du eta gai ugari jorratzen ditu bertan.

Sakanako Gizarte Zerbitzuak

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitz Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso

ZUZENTZAILEA: Felix Altzelai Iriarte

ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburuzordetza



SAKANAKO URTEKARIA: 2015 urteko ger-
taera nagusiei errepassoa egiten dien bide-
oa ikusgai dago www.guaixe.eus web
orrian.



sakanerria >>

>> **Irurtzun**



Irurtzundarrak kalean. ARTXIBOA

Udalak udaletxeko atekak parte-hartzeari zabaltzeko nahi dizkio

Kalez-kaleko bilerak deitu ditu hurrengo bi larunbatetarako

Irurtzungo Udalak herritarren parte-hartzea bultzatu nahi du. Udaletxearen atea herritarrendako zabalik egotea da helburua. Beraz, udalak "legegintzaldi honetan demokrazia parte-hartzailearen bidean pausoak" emana nahi ditu. Bai herriaren egoerari buruz bai herria hobetzeko dauden proposamenen inguruan irurtzundarren iritzia jakin nahi du udalak. Horregatik, kalez-kaleko bilerak antolatu ditu bihar-ko eta heldu den larunbaterako. Udaletik irurtzundarrei bileretan parte-hartzeko deia egin die. Parte-hartzeko bilerekin batera Irurtzungo Udalak azken urteetan aurrekontu parte-hartzaileen dinamika bulkatzen segituko du. Aurten irurtzundarrek udal aurrekontuaren 35.000 euro zertara bideratuko diren erabaki beharko dute.

Bilerak

>> **Ilbeltzak 16, larunbata**

10:00etan Oskia, Amaia, Ardubil eta Itxesia kaleetako bizilagunak.
12:00etan Aldapa, San Martin, Plazaola eta Trinitate kaleetako bizilagunak.
16:00etan San Migel, Urbasa, Artadia, Ardantzeta eta Erga kaleetako bizilagunak.

>> **Ilbeltzak 23, larunbata**

10:00etan Intxaurreta, Ugaldeta, Larraun eta Lizarra (19 zenbakira arte) kaleetako bizilagunak.
12:00etan Iturtxoko, Behetiko Erreka, Herria eta Lizarra (20 zenbakitik aurrera) kaleetako bizilagunak
16:00etan Berria, Elizpea, Bi haizpe eta Aralar kaleetako bizilagunak.

SAKANA

Sakanako enpresariekin bildu da Manu Aierdi

Garapen ekonomikoko lehendakariak aparte, Ekonomia-, Enpresa- eta Lan-Politika zuzendari nagusia Izaskun Goñi eta Sodena enpresa publikoko zuzendari-kudeatzaile Pilar Irigoien egon ziren ostiralean, Sakanako enpresariekin egindako lan bileran

Manu Aierdi Nafarroako Gobernuak garapen ekonomikorako kontseilaria eta bere lantaldea herrialdeko enpresari elkarte guztiekin elkarrizketa erronda egiten ari da. Sakanaren txanda izan zen ostiralean eta berrogeita hamar bat enpresari, garapeneko eragile eta udaleko ordezkariarekin bildu zen Altsasun. Aurretik, Sakanako Enpresarien Elkarteko zuzendaritzarekin bilera izan zuen. Bilerak ikusmin handia piztuzuen, eta makina bat medioetako kazetariak jarraitu zuten ekitaldia.

Aierdik azaldu zuenez, helburua Sakanako enpresarien egoera eta beharrak lehen eskutik jakitea zen. "Hau lehen urratsa da, eurekin harreman sendo bat izateko eta koordinaketa lanetan sakontzeko, guztion esfortzua bide berdinetik joateko. Lehen ez zen horrela, ez zegoen Nafarroako Gobernuak Ekonomia Departamentuaren eta Nafarroako ibarren arteko koordinazio iraunkorrik. Eta uste dugu erlazio egonkor bat egon behar duela. Bilera

hau lehen pausua da".

Bere aldetik, Sakanako Enpresarien Elkarteko presidentek, Francisco Lopez de Aldak, enpresen beharren berri eman zion kontseilariari. "Aurrera egiteko lan ingurune egokia behar dugu. Argi dago aktore guztiekin bildu behar dugula: langileak, sindikatuak, administrazioa... Horretaz aparte, dagoen lanbide heziketa hobetu behar da, eta, jakina, azpiegitura egokiak behar dira, elektrizitate eta internet azpiegitura egokiak, alegia. Nafarroako Gobernuaren aldetik harrera ona sumatzen dugu eta Sakanari bultzada emateko jarrera".

Sakanako Plan Estrategikoa, oinarri

Manu Aierdik nabarmendu zuenez, Nafarroako Gobernuak oso begi onez ikusten du Sakanako Plan Estrategikoa 2.020, "Sakanaren egoera bideratzeko ezinbestekoa". Ildo horretan, 2016ko aurrekontuetan diru saila jasoko du Gobernuak (250.000 euro), aipatu plana sustatzeko. Plana garatzeko Sakanako eta gobernuko ordezkarien arteko negoziazioek aurrera jarraitzen dutela aipatu zuen Aierdik eta aste honetan bertan, atzera ere, bilduko direla gaineratu zuen.



Parlamentuak Gobernuari plana aurrera egiteko baliabideak eskatu zizkion atzo.

Ibarraren aukerak

Aierdik Sakanak ekonomikoki dituen aukerak nahiz indarguneak aipatu zituen. Haien artean, industria-sare bat dugula azpimarratu zuen, "eta garai berriei egokitu behar bada ere, egote hutsa, zalantzarik gabe, oso datu positiboa da eskualdearen etorkizuneko garapenerako", azaldu du. Lehendakariordeak ere, turismoak, merkataritzak eta energia berriztagarriek duten ahal handia aipatu zuen, "enplegu asko sor ditzaketenak". Azkenik, dauden komunikabide onak nabarmendu zituen, Sakanan dagoen ekin-tzailtzarako tradizioa eta eskual-

Krisia datutan

- 2009 eta 2015 artean 400 enpresaren galera; 2.059tik 1.657ra.
- Epe horretan 2.075 lanpostu galdu ziren, industriako sektorean bereziki.
- 2014an Nafarroako langabetza-tasa % 16,1ekoa zen, Sakanan % 23,8 izan zen mendebaldean eta % 18 erdialdean nahiz ekialdean.

de horretako elkartegintzarako maila handia, "Nafarroako beste toki batzuetan baino handiagoa"



La cigüeña

LIKIDAZIOA

www.laciguenabebes.com
www.facebook.com/laciguenadealsasua

948 467 106
La Paz kalea 34, Altsasu

» Lakuntza

Festak, atsedena eta guzti

Aste erdian tokatu da aurten San Sebastian eguna. Hori dela eta, lakuntzarrek neguko festak bi txandetan ospatuko dituzte. Lehenik, bezpera eta sainduen eguna, hau da, astearte eta asteazkenean. Eta, osteguneko atsedeneren ondoren, ostiral eta larunbateko egitarauarekin despedituko dira San Sebastianak.



Egitaraua

» Ilbeltzak 19, astearte

18:00etan Txupinazoa.
18:30ean Danborrada txikia.
19:00etan Txokolate-jana, gurasoek antolatuta.
20:00etan Auzatea eta buruhandiak.
20:00etan Dantzaldia Elebitan dj-rekin.
20:30ean Zezensuzkoa.
00:00etan Danborrada, Lakuntzako Pertza elkarteak antolatuta.

» Ilbeltzak 20, asteazkena

6:00etan Aurora.
11:00etan Erromeria San Saastinera.
12:00etan Meza ermitan, parrokiak

antolatuta.

13:00etan Auzatea.
18:30ean Elai Alai dantza taldea.
19:00etan Alkate-dantza.
19:30ean Dantzaldia Inakirekin.
20:00etan Auzatea.
20:00etan Buruhandiak.
20:30ean Zezensuzkoa.

» Ilbeltzak 22, ostirala

15:00etatik 20:00etara Puzgarriak frontoian.
20:00etan Auzatea.
20:00etan Dantzaldia Bull dj-rekin.
20:30ean Zezensuzkoa.
00:00etan Dantzaldia Bull dj-rekin.

» Ilbeltzak 23, larunbata

12:00etan Piperropilak.
12:45ean Erraldoi eta buruhandien kalejira.
13:00etan Piperropil txapelketa.
13:00etan Aizkolariak eta harri-jasotzaileak, frontoian.
13:00etan Auzatea, plazan eta frontoian.
13:00etan Buruhandiak.
17:00etan Sakanako pilota txapelketako finalak.
18:30ean Karrika-dantza, kultur etxean.
20:00etan Auzatea eta buruhandiak.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Egan taldearekin.
20:30ean Zezensuzkoa.
00:00etan Dantzaldia Egan taldearekin.

» Olatzagutia

San Sebastianen hitzordua

Urbasako portuko bide bazterrean dagoen San Sebastian ermitan ezohiko mugimendua izanen da helduden asteazkenean. Ermitako titularren eguna izanik, hainbat olatziar pasako dira ermitatik eta, atzera ere, bilgune bihurtuko da.



Egitaraua

12:00etan Meza.
13:00etan Otordua. San Sebastian auzokoek prestaturik.
17:00etan Arrosarioa.
17:30ean Txokolatea erroskilekin, ermitan.
19:30ean Ardo eta gazta banaketa, pilotalekuan. Trikitixek alaitua.

» Olatzagutia

Guraso eskolan izen ematea zabalik

Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Akelarre ludotekak antolatuta Guraso Eskola bueltan da. 0 eta 6 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzendutako ekimena da Guraso Eskola. Berdinen arteko harreman tratu egokiez aritzeko elkartuko dira. Bost saio izanen dira (ilbeltzak 19, otsailak 2, martxoak 8, apirilak 12 eta maiatzak 17), asteartean, 15:00etatik 16:30era, Akelarre ludotekan bertan.

Izen ematea

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak,
948 467 662

» Altsasu

Gamazadaz gehiago jakiteko

Gaur, 19:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean hitzaldia izanen da

1841eko Lege Hitzartuak Nafarroak erreinu izateari utzi eta herrialderako zerga-araubide forala ezarri zuen. Mende erdi geroago Espainiako Gobernuak Ogasun Ministroak, German Gamazo liberalak, hura kentzen saiatu zen. 1893 eta 1894 urteetan Nafarroan, bai herriaren, bai erakundearen mobilizazio orokorrak eta manifestazioak izan ziren. Horri deitzen zaio Gamazada. Protesta giro hartan, erakundeek Gamazoren neurrien kontrako 120.000 sinadura jaso zituzten 1893an. (herrialdeak 300.000 biztanle zituen). Sinatzaileen artean makina bat sakandar daude. Guztiak *El libro de honor de los navarros* liburuan jasoak daude.

Liburu horren berrargitalpena dela eta, Gamazadaren berri emateko hitzaldia emanen du Maria del Mar Larrazak Altsasun, gaur. Nafarroako Unibertsitateko historia garaikideko irakasleak foru-protesta hari buruzko argibideak emanen ditu. Hitzaldia Mintzoa argitaletxeak eta Altsasuko Udalak antolatu dute.

SAKANA

NUPetik Arbizuko hondakindegira bisitan

Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Ingurumen Agrobiologia masterraren barrukok klase irekietan, hondakin organikoaren tratamendu biologikoari buruzko jardunaldiak antolatu ditu. Arlo horretan aditu handienetako bat den Ramon Plana Gonzalez-Sierra ari da eskolak ematen asteartez geroztik. Jardunaldiak despeditzeko, gaur goizean, Mendialdeko (Leitza) eta Sakanako Mankomunitateen (Arbizu) hondakindegia bisitatuko dituzte. Hondakin organikoak nola jaso eta tratatzen duten aztertuko dute bisita horietan.

» Iturmendi

Gaztetxearen urteurren festa

Sakanako gaztetxe gazteenaren urtemuga ospatuko dute Iturmendin, bihar. Bost urte egin ditu Ximona gaztetxeak. Iturmendiko Gazte Asanbladako (IGA) kideek 2011ko ilbeltzaren 7an okupatu zuten. IGAtik gogora ekarri dute gaztetxearen ibilbidea laburrean izandakoak: "lehenengo txukuntza lan gogorak, udalarekin eta aldamenekoekin liskarrak, jabeekin harre-

manetan jartzeko ahaleginak, udal aldaketa, gaztetxearen atlehoetan hormak jartzea eta bigarren okupazioa... azkenean udaletxeak gaztetxea eta alboko etxea erosi zituen eta gure egoera dezente hobetu zen". IGako kideek azaldu dutenez, bost urte hauetan eraikina "hobetzen joan gara: teilatua konpondu, bigarren solairua eraiki..." Bide horretan hainbat sakandarrek



Egitaraua

12:00etan Mural margotzea, gaztetxean.
14:30ean Bazkaria eta kantaldia.
19:00etan Kalejira.
19:30ean Pintxo-potea, gaztetxean.
22:00etan Aferia.
23:30ean Kontzertuak, gaztetxean: Zigor Kaos y Los Etilikos (Kaos Etiliko taldearen tributua)
Ingo al deu (Erromeria)

emandako laguntza eta animoak eskertu dituzte. Ximona gaztetxetik urteurrena ospatzeko gonbita luzatu dute.

» Uharte Arakil

Odol emaleei omenaldia egin diete

Zazpi uhartearrek urrezko eta zilarrezko dominak jaso zituzten egindako odol emateengatik

Maialen Huarte Arano

Lau urrezko domina eta hiru zilarrezko banatu dituzte Uharte-Arakilen. Odol emaleei omenaldia egin diete aurten ere. Urrezko dominen artean, hiru, emakumezkoendako izan dira: Ana Maria Azkona, Ana Maria Etxarri eta Maria Elena Lakuntzarendako. Hiru ere 50 odol-emate egin ditu bakoitzak. Esker onez, urrezko domina eman zieten joan den igandean. Haiekin batera, Miguel Ihabenek ere urrezko domina jaso zuen. 25 odol-emate egiteagatik Eneko Martiarenak, Ines Etxabarrri Cerdanek eta Javier Zubietak jaso zuten zilarrezko domina bana.

Adona elkartearen presidentek, Jesus Mari Masek eman zizkien dominak. Ekitaldia gidatzen Joxe Mari Ustarroz izan zen eta Uharteko alkateak ere hartu zuen parte, Ainara Aiestaranek. Masek herriko odol emaleen datuak



Adonako lehendakariak, eskubian, odola emateko deia egin zuen.

eman zituen: "180 uhartear dira odol emaleak. Joan den urtean 40 bizilagun izan ziren odola ematera animatu zirenak eta guztira 66 odol poltsa eskaini zituzten, haie-tatik 51 Uharten bertan. Bestalde, bi uhartear odol emale izan ziren lehenengoz 2015ean". Odola ematearen garrantzia azpimarratu zuen Masek eta dei egin zuen jendeak kontzientzia hartu eta odol-

emale izateko.

1.800 odol emale berri izan ziren joan den urtean Nafarroan. Gehienak gazteak; 25 eta 35 urte artekoak izan dira. Dena dela, jende gazteari kosta egiten zaio pauso hori ematea eta ohartarazi du Masek beharrezkoa dela erreleboa, bestela, arazo bilakatuko da odola falta izanen delako. Azaldu du herritarren %70 prest legokeela

odola emateko, hala adierazten dute galdeketen emaitzek baina, eskatuz gero joaten dira odola ematera. Falta den urratsa egiteko maiztasuna da gakoa. Odol emale izatea norberak hartu duen erabakiagatik izan behar da eta ez beharrezkoa araberak. Uhartearrek herriaren odola emateko aukera martxoaren 10ean izanen dute. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

» Unanu

Unanun haserre daude

Eraikuntza hondakinak bota zituzten pasa den astean haiek kudeatzeko proiektua aurreikusten den soroan

Eraikuntza eta eraiste hondakinak kudeatzeko instalazio bat jartzeko proiektua dago Unanun, untxi granjaren ondoan (Dorraorako errepide ertzean). Ergoiena Bizirik plataformak jakinarazi duenez, "jabeek, inongo baimenik eskatu gabe, soro horretara hondakinak bota dituzte, hondakindegia bihurtuz. Jarduera hori aurrera eramateko Unanuko Kontzejuak eta Ergoienako Udalak ez dute baimen eskaerarik jaso". Jokabide "ez onargarriztat" jo dute eta "beharezkoak diren neurriak abian jarri" dituztela jakinarazi dute. Plataformatik gaineratu dutenez, "proiektu egileen ekintzak, bazterrak harrotzeaz aparte, haserre handia ere eragin du herritarren baitan".

Abenduaren 13an egindako batzarran unanuarrek kokapena bate-re egokia ez zela adierazi zuten; landa eremu batean baino industrialde bat hobe jotzen dute. Batzarran izan ziren unanuarren ustez egitasmoa soro horretan egiteak "eragin kaltegarriak sor ditzake: zarata, hautsa eta ugaldearen kutsadura besteak beste". Aldi berean, ilbeltzaren 24rako (11:30etik 14:30era, kontzeju-etxean) gaiaren inguruko herri galdeketa egingen da.



Botatako hondakinak. UTZITAKOIA

SAKANA



Kalea jendez beteta Altsasuko ferietan.

Sakanak biztanleak galdu ditu, bigarren urtez

2015eko lehen egunean 2014ko egun berean baino 197 sakandar gutxiago geunden. Jaitsiera ez da 2014koa bezain handia izan, baina bi urte horietan ibarreko populazioa %2,43 jaitsi da. Hau da, 502 biztanle gutxiago bi urtetan

2013. urtean populazio errekorra lortu ondoren (20.809), Sakanako biztanleriak behera egin du ondorengo bi urteetan. 2014an 305 biztanle galdu ondoren, 2015ean ibarrek 197 biztanle (%0,96) gutxiago zituen, 20.307 guztira. Duela bi urteko jaitsiera erritmoa moteldu egin da (20 puntu txikiagoa da), baina beherako joeran beti ere. Geroari dagokionez, 2015eko ilbeltzaren lehen Sakanan 10.422 gizoneko bizi ziren, aurreko urtean baino

100 gutxiago. Emakumezkoak, berriz, 9.885 ziren, 97 gutxiago. Urte batetik bestera genero banaketaren portzentajeak mantendu egin dira: %51,32 eta %48,68. Sakanako udalerrri bakarrean bizi dira emakumezko gehiago gizonetzkoak baino: Ziordian.

Herrika

Ibarreko sei udalerritan egin du biztanleriak gora eta gainontzeko bederatzietan behera egin du. Herritar hazkundea izan duten udalerrriak dira: Arakil (14 biztanle gehiago, %1,49); Irañeta (1, %0,58), Uhartea Arakil (1, %0,12), Bakaiku (3, %0,89), Urdiain (4, %0,59) eta Ziordia (9, %2,37). Herri-

tarrak galdu dituzte gainontzeko herriek: Irurtzun (29 biztanle gutxiago, %1,3), Arruazu (-3, %2,70), Lakuntza (-5, %0,4), Arbizu (-6, %0,54), Ergoiena (-3, %0,75), Etxarri Aranatz (-25, %1), Iturmendi (-4, %1,02), Altsasu (-122, %1,6) eta Olatzagutia (-32, %2,06).

Atzerago begiratuz gero, 2015eko datuak 2005ekoekin eta 2010ekoekin alderatuta, hiru udalerririk biztanleria galdu dute: Irurtzunek, Ergoienak, Olatzagutiak. Eta alderaketa bera eginda, biztanleetan gora egin dute beste hiru: Irañetak, Lakuntzak eta Arbizuk. Sakanako udalerrri gehienek 2005ean baino herritar gehiago zituzten 2015ean. Joan den urteko datuak

314 nafar gutxiago

Laugarren urtez segituan Nafarroak biztanleria galdu zuen. 2015eko ilbeltzaren aurreneko egunean herrialdean 640.476 nafar bizi ginen, aurreko urtean baino 314 gutxiago (%0,05). Emakumezkoak 322.591 ziren, 287 gehiago (%0,09). Gizonetzkoak, berriz, 317.885; 601 gutxiago (%0,19).

SAKANAKO BIZTANLEARIAREN GARAPENA, URTEKA

Urtea	Guztira	Gizon	Emakume
1998	18.990	9.757	9.233
1999	19.104	9.815	9.289
2000	19.164	9.875	9.289
2001	19.392	10.023	9.369
2002	19.677	10.198	9.479
2003	19.832	10.287	9.545
2004	19.862	10.310	9.552
2005	20.002	10.380	9.622
2006	20.028	10.407	9.621
2007	20.086	10.430	9.656
2008	20.447	10.625	9.822
2009	20.652	10.686	9.966
2010	20.805	10.749	10.056
2011	20.776	10.732	10.044
2012	20.768	10.713	10.055
2013	20.809	10.701	10.108
2014	20.504	10.522	9.982
2015	20.307	10.422	9.885

Iturria: www.ine.es

2010ekoekin alderatuz gero udalerrigehienek biztanleria galduzuten. Ibarreko biztanleria errekorra 2013an izan zen eta 2010ean gorako bidean zen biztanleria.

2015-2014 ALDERATZEA

	2015			2014			2015-2014 aldea			2015-2010		2015-2005		
	Guztira	Gizon	Emakume	Guztira	Gizon	Emakume	Guztira	Aldea %	Gizon	Emakume	Guztira	Aldea	Guztira	Aldea
Altsasu	7.490	3.785	3.705	7.612	3.836	3.776	-122	-1,60	-51	-71	7.698	-208	7.455	35
Arakil	955	494	461	941	487	454	14	1,49	7	7	965	-10	862	93
Arbizu	1.111	571	540	1.117	576	541	-6	-0,54	-5	-1	1.082	29	982	129
Arruazu	108	56	52	111	57	54	-3	-2,70	-1	-2	113	-5	106	2
Bakaiku	339	178	161	336	179	157	3	0,89	-1	4	340	-1	338	1
Ergoiena	397	215	182	400	216	184	-3	-0,75	-1	-2	432	-35	445	-48
Etxarri A.	2.466	1.280	1.186	2.491	1.291	1.200	-25	-1,00	-11	-14	2.482	-16	2.454	12
Irañeta	172	96	76	171	96	75	1	0,58	0	1	157	15	158	14
Irurtzun	2.194	1.133	1.061	2.223	1.153	1.070	-29	-1,30	-20	-9	2.230	-36	2.209	-15
Iturmendi	388	200	188	392	202	190	-4	-1,02	-2	-2	400	-12	380	8
Lakuntza	1.257	651	606	1.262	653	609	-5	-0,40	-2	-3	1.219	38	1.103	154
Olatzagutia	1.520	776	744	1.552	794	758	-32	-2,06	-18	-14	1.719	-199	1.730	-210
Uhartea Arakil	840	443	397	839	444	395	1	0,12	-1	2	866	-26	799	41
Urdiain	681	354	327	677	352	325	4	0,59	2	2	710	-29	620	61
Ziordia	389	190	199	380	186	194	9	2,37	4	5	392	-3	361	28
SAKANA	20.307	10.422	9.885	20.504	10.522	9.982	-197	-0,96	-100	-97	20.805	-498	20.002	305

SAKANA

Eskubideen aldeko trenera igotzeko deia

Horixe da Sare dinamika egin duena larunbateko manifestazioen ondoren. Jendetza elkartu zen Baionan eta Bilbon, *eskubideen, konponbidearen eta bakearen alde, euskal presoak Euskal Herri-ara leloa zuten pankarten atzean*. Haien artean makina bat sakandar izan ziren. Trena hartzeko deiarekin, Sarek dinamika berria jarri du martxan. Sarekideen asmoa

da herriz herri eta auzoz auzo "trenbide sarea" hedatzea, "presoen alde bildutako indar itzela sostengatu eta bideratzeko".

Bestalde, preso adina Ernaiko kide, 410, Hego Euskal Herriko hiriburu-tako toki publikoetan kateatu ziren 2015eko azken aurreko egunean. Iruñean Espainiako Gobernuaren ordezkartzan 61 gazte kateatu ziren hiru bat orduz. Haietako asko sakandarrak ziren. Ekimen horrekin Ernaik preso eta iheslari guztiak etxera ekartzea aldarrikatu zuten.

Ana Santano

Bularra ez da soilik elikadura

2016an ere zurekin

635 811 106

Gartzia Ximenez 16 · Altsasu

nere cenoz
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenoz.com
nereacenoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

Kirol-elikadura

Elikadura arazoak

Nutrizio-hezkuntza

>> Altsasu

Kintoek erregina eta erregea dituzte

Melany Morales eta Imanol Lobo Yeregi dira erregina eta erregea. Haien laguntzaileak Paula Diaz Diego eta Alberto Barrikarte Calvo dira

Javier Ollo Martinez alkateak zuzendutako ekitaldian aukeratu ziren 2016ko kintoen erreginak eta erregeak, txanponak aginduta, orden horretan. 34 neskek eta 25 mutilek osatzen dute aurtengo kintada.

59 kintoak ostiralaz geroztik Burunda pilotalekuan zortzikoa, jota eta porrusalda entseatzen ari dira. Bai Lobok bai Diazek jakinarazi digute ostiraletan baka-rik etorri ahalko direla, lehenak Iruñean ikasten duelako eta, bigarrena, guraso altsasuarren alaba iruindarra delako.



59 neska-mutilek osatzen dute aurtengo kintada.

>> Lakuntza

Independentistenda ko deialdia

Bihar, 10:00etatik aurrera, kultur etxean Independentistak Sareak topaketa irekia egingen du

Independentistak Sareak independentziaren aldeko mugimendua- ren urrats berriak aztertu eta erabakitze helburuz antolatu du biharko topaketa irekia. Sareak 2014ko martxoan bi urterako plan estrategikoa zehaztu zuen. Sareko kideen iritziz, bitarte horretan "are- agotu egin da independentziaren zentralitatea eztabaida politikoan eta erabakitze eskubidaren alde- ko ekimenak oinarri sozial zabala bereganatu du". Eskoziako errefe- renduma eta Kataluniako prozesua ere aipatu dituzte.

Sareko kideak "gehiengosozial inde- pendentista bat metatzeko estrate- gian sakondu eta egungo Euskal Herriarendako etorkizuneko alter- natiba izan behar duen independen- tismoa definitzen" aritu dira. Egin- dakoa baloratu eta "egungo egoe- ra sakon aztertze" elkartuko dira Lakuntzan, "euskal mugimendu inde- pendentista aurrera begira gara- tu behar duen estrategia eta egin behar dituen urratsak ondo zehaz- tu eta jarduera plan bat mahai gai- nean jartzeko". Saretik jakinarazi dutenez, "jauzi bat egiteko garaia da". Horretarako prozesu irekia mar- txan jarriko dutela jakinarazi dute, eta Lakuntzako biharko topaketa ire- kia aurreneko pausua da. Indepen- dentista guztiak parte hartzerag- onbidatu dituzte.



SAKANA

Hualde Nafarroako EAJko presidentea

Unai Hualde Iglesias altsasuarra izanen da Nafarroako Eusko Alder- di Jeltzaleko presidentea. Bera da hautagai bakarra eta Nafarroako Uri Batzarretako babes jaso du, tartean Etxarri Aranatz eta Altsa- sukua. Nafarroako EAJk ilbeltza- ren 24an izendatuko du Hualde pre- sidente, beste hainbat kargurekin batera. Izan ere, gaurtik asteazke- na bitarte jeltzaleek Napar Buru Batzarreko hamar burukide, Lurraldeko Justizia Tribunalera- ko bost kideak eta nazio batzarre- rako bost kideak aukeratzeko epea zabalik dute jeltzaleek. Kargu guz- tiak otsailaren 13an eta 14an alder- diak Iruñean egingen duen batzar nagusian berretsiko dira.

Garilaz geroztik Hualde Nafa- rroako EAJko behin behineko pre- sidente da. Nafarroako Gober- nuan sartzeko kargua utzi zuen



Manu Aierdiri hartu zion lekukoa. Hualde 1999z geroztik da EAJko kide eta burukidea 2004tik. Altsa- sukua alkate izan da eta gaur egun zinegotzia da eta Geroa Bairekin parlamentaria da. Kargu hori har- tuko duen bigarren altsasuarra izanen da Hualde, Jose Angel Agi- rrebengoak 2004 eta 2011 urteen artean ere izan baitzuen.

>> Bakaiku

Sei bakaikuarren auzia, artxibatua

Bakaikuko EH Bilduk jakinarazi duenez, festetan "terrorismoaren apologia" egiteaz leporatutako sei bakaikuarren auzia artxibatu egin du Espainiako Auzitegi Naziona- lak. Santiago Pedraz epaileak eska- tuta bakaikuarrek Iruñetik bideo- konferentziaz deklaratu zuten, abenduaren batean. Fiskaltzak berak auzia artxibatzea eskatu zuen eta epaileak bere egin zuen eskaera abenduaren 22an. Beraz, auzia edo salaketa bertan behera geratu da. Guardia Civilaren txos- ten batek abiarazi zuen auzia.

Bakaikuko EH Bildutik salatu dute Espainiako Gobernu Ordez- kari Carmen Alba "buru belarri dihardu Nafarroan abian den alda- keta politiko eta sozialerako auke- ra zapuztu nahian, besteak beste, gure instituzioetan hartzen diren erabakiak errekurriruz, edo hau-



tetsi eta herritarrek epaitegieta- ra bidaliz". Koaliziotik adierazi dutenez, "euskal preso politiko- en eskubideen defentsa kriminaliza- tu eta isildu nahi dute, elkartasu- na delitu bihurtu eta beldurra zabaltzeko asmoz". Horregatik, Bakaikuko EH Bildutik "Nafarro- an aurreko urtean lortutako alda- ketan sakondu eta presoen esku- bideen defentsan tinko aritzeko deia egiten diegu herritarrei".

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€. Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**. Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

Lana/ Negozioak**LAN ESKAINTZA**

Euskara irakaslea behar dut Hezkuntza Eskolako goi-mailako azterketa prestatzeko. Interesatuak hots egin dezatela 669 97 63 44 telefonora.

Higiezinak**ETXEBIZITZAK****SALDU**

Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranatz. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130metro karratuko lursaila. Interesatuak deitu 676 92 71 65 telefonora.

ERRENTAN EMAN

Pisua alokatzen dut Lakuntzan. 3 gela, 2 komun. Deitu 689 23 27 08 Jose.

LOKALAK**ERRENTAN EMAN**

Urdaingo Kaluxa taberna-jatetxea aloka- tzen da. Tel 680 87 10 18.

Opatutakoak / galdutakoak**OPATUTAKOAK**

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta neze- serrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko- zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imi-

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

taziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

GALDUTAKOAK

Errege egunean Beriain mendian ibiltze- ko diren bi makil galdu nituen, aparkale- kuan. Opatu dituenak, mesedez, hots egin deza- la 646 88 97 76 telefonora.

Etxarri Aranazen betaurreko graduatuak galdu ditut. Opatu dituenak, mesedez, hots egin deza la 649 54 58 38 telefonora.

Ikastaroak

Amalur Montessori Haur Eskola. Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua, beren

JAIOTZAK

- Eneko Aritz Gelbentzu Maria, abenduaren 15ean Arbizon.
- Iradi Ondarra Ganuza, abenduaren 22an Bakaikun.
- Oihan Beaumont Asio, abenduaren 22an Hiriberrin.
- Anas Hassad, abenduaren 26an Altsasun.
- Julen Moreno Zeberio, ilbeltzaren 2an Etxarri Aranatz.
- Janitz Moro Ginea, ilbeltzaren 6an Etxarri Aranatz.
- Jon Garcia Agirre, ilbeltzaren 10ean Lakuntzan.

HERIOTZAK

- Isidoro Cruz Fuste Vidal, azaroaren 18an Ziordian.
- Desideria Marroyo Lopez, abenduaren 22an Altsasun.

- Carlos Mugika Martinez, abenduaren 24an Ziordian.
- Rafael Arteta Bengoetxea, abenduaren 28an Altsasun.
- Justa Garziandia Etxeberria, ilbeltzaren 2an Lakuntzan.
- Mercedes Lazkoz Razkin, ilbeltzaren 3an Lizarragabongoan.
- Jose Ignacio Ganuza Gonzalez, ilbeltzaren 3an Olaztin.
- Miguel Iparragirre Antoñana, ilbeltzaren 6an Olaztin.
- Julen Galarza Otxoa, ilbeltzaren 7an Iturmendin.
- Manuela Pulido Holgado, ilbeltzaren 8an Altsasun.
- Rafael Miguel Etxeberria Pellejero, ilbeltzaren 9an Lakuntzan.

Informazio hau epaitegieta eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

ongizatea bermatzen duen proiektu euskalduna. Harremanetarako 620 25 42 30 eta

amalur@amalurelkarrea.org



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

948 197 070

www.tanatoriosirache.com

Mercedes Lazkoz Razkin

Maitasuna ez da inoiz itzaltzen
ta zuk emandakoa
ez da inoiz itzaliko.

Zure familia

Lizarragabengoan, 2016ko urtarrilaren 3an.

**Mercedes Lazkoz Razkin**

Joan zatzaizkigu lurretik,
baina ez gogotik, ezta bihotzetik ere.

Familiak esker ona adierazi nahi dizue
momentu triste hauetan, gure ondoan
egon zareten guztiei.

Lizarragabengoan, 2016ko urtarrila.

**Mercedes Lazkoz Razkin**

(Patxi Flores Lazkoz gure kolabratzailearen ama)

Une latz hauetan
bat egiten dugu
familiaren
saminarekin.

Guaixe Fundazioko langileak**Mercedes Lazkoz Razkin**

(Patxi Flores gure lankidearen ama)

AEK-ko lankideak**Mercedes Lazkoz Razkin**

Euskarari eman diozulako
arnasa eta izatea.

Mank
s a k a n a**Rafa Etxeberria Pellejero**

Ideia anarkistaren haizea,
herri euskaldunaren gosea,
gure artean geratuko da, Rafa,
zure izakera goxo eta askea.

Ez adiorik, Laxkarringo Rafa,
jo ta ke irabazi arte.

Lakuntzako Ezker Abertzalea**Rafa Etxeberria Pellejero**

Bidelagun, askatasuna
eta justizia helburu!

Egun handira arte, Rafa!

**LAKUNTZA**
Udala • Ayuntamiento**Hainbat aukera**

Galdetu

948 564 275**Rafa Etxeberria Pellejero**

Mila esker.

kattuka
haur eskola**Rafa Etxeberria Pellejero**

"Lakuntzako Udaleko zinegotzia"

Jende txiki askok, toki txiki askotan,
gauza txikiak eginez, mundua alda dezake.
Milesker, Rafa!

Sakanako EH Bildu**ehbildu**


GRUPO

Funeraria
VASCONGADA

Ehorzketak

TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com**24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980**



Rafael Miguel Etxeberria Pellejero
 Rafa, gure ondotik joan zara isilean. Horrelakoa zinen zu, pertsona atsegina, zintzoa eta konprometitua. Zure egitasmoak egi bihurtuko dira. Gure bihotzean beti egonen zara. Ez adiorik.
54ko Lakuntzako kintoak

Oroigarriak




Guaixe KOMUNIKAZIOA
948 564 275

Pilar Chasco Arzoz
 "Karmele Marañon Arbizuko alkatearen ama"


Arbizuko Udaleko zinegotziek eta langileek doluminak adierazi nahi dizkiegu Karmeleri eta familiari une mingarri hauetan.

Arbizun, 2016ko urtarrilaren 13an.



Julen Galarza Otsoa

Eredu izan zaren hori, agur eta ohore.



Iturmendiko Ezker Abertzalea

Matias Salazar Goikoetxea

Bihotzez eskertzen dizugu mendizaletasunari egin diozun ekarpena eta, bereziki, Altsasuko Mendigoizaleak elkarteari.

Altsasuko Mendigoizaleak Elkarte

Julen Galarza Otsoa

Izarren hautsa egun batean hauts hartatikan uste gabean
 bilakatu zen bizigai, noizpait ginaden gu ernai.



Mila esker.



Iturmendiko Aitzkozar Elkarteko kideak

★ **Julen Galarza Otxoa**

Eskerrik asko bihotzez Eztanda irriarengatik eta Ximona Gaztetxearengatik egindako guztiagatik. Agurrik ez, lagun!

Julen Galartza Otxoa

Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak ez bada erroi edo arrubioen mokoetan, ez du liliak udaberria uzten ez bada abaildu eta oholetan. Nekez uzten du gezalak itsasoa

ez hareharriak basamortua ez du niniak begia uzten ez elurrak txuritasuna. Bere sorterrria nekez uzten du, sustraiak han dituenak.


Zure alaben lagunak



☀ **Julen Galarza**

Aspaldi irakatsi zenigun maite ditugun gauzengatik borrokatu behar dela, bihotzari entzun behar zaiola bera baita gutxienetan okertzen dena.

Zure alaben lagunak



Julen Galartza Otxoa

Urte berri sarrera honetan argi bat itzali da gure lantegian. Zure txokoak dir dir iraunen du betirako. Agurrik ez, Julen, gero arte baizik. Ez zaitugu ahaztuko.

Zure lantegiko lankideak



2010EKO SAKANAKO KIROL URTEKA-RIA: 2015 urteko kirol gertakari nagusiei errepassoa egiten dien bideoa ikusgai dago www.guaixe.eus web orrian.



kirola >>

Pilota



Murgiondo eta imaztarrak Zangozako lau t'erdiko finaletara

Murgiondok Rebolé izango du aurkari

Asteburuan Zangozako lau t'erdiko aurre finalak jokatu dira Cantolagua pilotalekuan. Kimuetan Arbizu Klubeko Aldabidek 4 eta 18 irabazi zion Cantolagua klubeko Reboléri, eta haurretan Aldabideko Imazek 16 tantotan utzi zuten Lizarra klubeko Berrueta. Seniorretan Irurtzun klubeko Murgiondok 22 eta 6 irabazi zion Zugarraldeko Alduntzini. Hortaz, kimuen finalean Imaz, haurren finalean Imaz eta seniorren finalean Murgiondo izango ditugu. Murgiondok Zugarraldeko Rebolé izango du aurkari.



Irurtzun III. Hiru Kirol Esku Huskako Txapelketa

Berriki III. Hiru Kirol Esku Txapelketa jokatu da eta Irurtzun kluba izan da garailea, merezimendu osoz. Oberena klubaren kontrako final estuan, jokatu ziren hiru partidetan gailendu ziren irurtzundarrak. Lau t'erdian Ezkurdiak (Irurtzun) 18 eta 4 irabazi zion Etxamendiri (Oberena), buruz burukoan Armendariz (Irurtzun) 18 eta 12 gailendu zen Artuchen (Oberena) aurrean, eta binakakoan Lansalotek eta Bergerak (Irurtzun) 22 eta 12 irabazi zieten Ansari eta Gartzinari (Oberena). Bestalde, aipatzekoa da Irurtzun Pilota Kluba Euskal Herriko senior mailako Pilota Ligan eta Espainiako Txapelketako Ohorezko Mailan dabil lehian.

Pista txirrindularitza

Hodei Mazkiaranek bizikleta zintzilikatu du

Joko Olinpikoetara sartzeko aukerarik gabe geratu denez, bizikleta zintzilikatzea erabaki du altsasuarrak

Pistako txirrindularitzako elitean 9 urtez profesional ibili ondoren, bizikleta zintzilikatzea erabaki du Hodei Mazkiaran Uria altsasuarrak (1988, Altsasu). Burunda Txirrindularitza Klubean hasi zuen bere ibilbidea Mazkiaranek, 9 urterekin, eta 2004an egin zuen salto pista txirrindularitzara. Berehala emaitza bikainak pilatzen hasi zen altsasuarra. Bere progresioa ikaragarria izan zen eta 2007an brontzezko domina lortu zuen Munduko Kopako keirin proban eta bi urte beranduago zilarrezko domina Danimarkan. 2006an Reyno de Navarra taldearekin fitxatu zuen eta 2008an Cempa-Eustrakekin, egunera arte.

2012an ametsa gauzatu zuen:



Hodei Mazkiaran, eskuinean, lehiaketan dena ematen. UTZITAKOIA

Londoneko Joko Olinpikoetan aritu zen. 200 metroko abiadurako probako sailkatze txandan parte hartzen ari zela, matxura izan zuen: probaren erdian, bizikletako aulkiari eusten zion torloju hauitsi zitzaion eta sillinarik gabe geratu zen. Errepeka egiteko

aukera eman zioten segidan, baina Hegoafrikako Bernard Esterhuizenek bidean utzi zuen. Hala ere, egoerari buelta eman eta 2013an emaitza bikainak lortu zituen altsasuarrak: Mexikon eta Kuban urrezko domina lortu zuen eta Espainiako kilometroko pro-

bako errekorra lortu zuen Aguascalientesen (01:00:069). Baina horrik aurrera ibilbide gorabeheratsua izan du altsasuarrak.

27 urterekin bizikleta uztea erabaki du pistardak, hain zuzen ere Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetako bezperetan. Joko Olinpikoetan aritzea zen bere helburua, baina aurten ezingo da aritu. Izan ere, Jokoetarako sailkatzeko puntuazioa jakina lortu behar da Munduko Kopatan. Baina 2014ko Munduko Kopatan zortea ez zuen bere alde izan altsasuarrak. Erorketak eta matxurak tarteko, ezin izan zuen beharrezko puntuazioa lortu. Horregatik, bizikleta utzi eta atsedean hartzea erabaki du Mazkiaranek, pistako txirrindularitzan "guztia Joko Olinpiarren inguruan" mugitzen delako. Orain ikasketak despeditzea da bere asmoa.

Pilota

Ezkurdia: "Irabazten badugu aukerak izaten jarraituko dugu"

Bihar Olaizola eta Urrutikoetxea (5 puntu) izanen dizuzte aurkari Ezkurdiak eta Barriolak (2 puntu). Puntuen beharrea daude

Binakakoan oso garesti dago puntuak lortzea. Hori oso ongi dakite Joseba Ezkurdiak eta Abel Barriolak. Larunbatean galdu egin zuten, atzera ere puntu eskas batengatik, Oinatz Bengoetxearen eta Alvaro Untoriaren kontra. Gorabehera askoko partida gogor eta luzean —ordu eta erdi luzean 650 pilotakada baino gehiago eman zituzten—,

Ezkurdiak eta Barriolak esku-eskura izan zuten txapelketako hirugarren puntu, 18 eta 20 aurreratuta egon baitziren, baina azkeneko tantoetan huts egin zuten.

Akats nabarmenak eta polemika izan ziren tarteko azken tantoetan, Untoriaren jaurtiketa batek kontrakantxako lerroan botea egin zuen edo ez zalantza egon baitzen. Azken tantoan, Oinatzek egindako dejada batek eman zien urrezko puntu Bengoetxea VI.ari eta Untoriari.

Ezkurdiak eta Barriolak, bi puntu dituztela, 5 puntu dituzten Olaizola II.a eta Urrutikoetxea izango dituzte aurkari bihar Labriten. Partida konplikatu izango da, baina puntuatu beharrea daude Ezkurdiak eta Barriola.

Binakako Txapelketa. 7. Jardunaldia

Artola-Albisu / Irribarria-Merino (ostiralean, 22:00etan, Zumarragan. ETB1, ntb)

Olaizola II.a-Urrutikoetxea / Ezkurdiak Barriola (larunbatean, 17:45ean, Iruñean).

Bengoetxea VI.a-Untoria / Altuna III.a-Merino II.a (igandean, 17:00etan, Markinan. ETB1, ntb)

Berasaluze II.a-Beroiz / Irujo-Rezusta (astelehenean, 17:00etan, Mungian)

Binakakoaren sailkapena

Irujo-Rezusta	5 puntu
Olaizola II.a-Urrutikoetxea	5 puntu
Bengoetxea VI.a-Untoria	4 puntu
Artola-Albisu	4 puntu
Irribarria-Merino	2 puntu
Ezkurdiak-Barriola	2 puntu
Altuna III.a-Merino II.a	1 puntu
Berasaluze II.a-Beroiz	1 puntu



Partidetan gozatzea helburu



Txapelketa estua ari da izaten. Ezkurdiak eta Barriolak bi partida puntu eskasaren aldearekin galdu dituzte, 22 eta 21. "Haiek irabaziz gero, bestelako egoeran egongo ginateke, baina ezin gara horri begira bizi. Olaizola II.ari eta Urrutikoetxeari irabazten badiegu, aukerak izaten segituko dugu" aitortu dio Joseba Ezkurdiak Berria egunkariari. Dena den, arbi-zuarrak onartzen du "zaila" izango dela hori. "Urrutikoetxea aurreikuspen guztiak gailditzten ari da atzelari moduan, eta Olaizolari buruz zer esan? Hala ere, gure esku dagoen guztia egingo dugu irabazteko" gaineratu du. Orain pilota azkarragoak hautatzen dituztela aipatu zuen aurrelariak. "Ikusi dugu astunekin gehiago kostatzen zaigula irabaztea. Azkarragoekin Barriola errazago aritzen da eta nik ere abiadura baliatzen dut min egiteko". Baina Ezkurdiak nabarmendu duenez, "finalerdietarako sailkatzea ez, partida denetan gozatzea da gure helburua". Ildo horretan, Barriola goraiatu du. "Izugarri ikasten da bere ondoren jokatu. Beti ematen dit aholku egokiak, eta bikote sendoa osatzen dugula pentsatzen dut. Niretzat maisua da bera" aipatu du arbi-zuarrak.

Etxerako aseguroak

Zure etxea dena delakoa izanda ere

Konfiantzazko aseguratora orokorra!

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU



Pala

Garmendia eta Ruiz txapeldunak



Puntako finalistak izan zituen I. Gure Pilota Pala Torneoak. UTZITAKOIA

1. Gure Pilota Pala Torneoko finalak jokatu ziren abenduaren 27an, Etxarri Aranatz

Abenduaren 27an jokatu ziren I. Gure Pilota Sakanako Pala Torneoko finalak. Txapelketa Nafarroako Pilota Federazioak antolatu zuen, Sakanako Mankomunitatearen, Etxarri Aranazko Gure Pilota klubaren eta Arbizuko eta Etxarri Aranazko Udalen laguntzarekin. Helburua txapelketa indartsu bat antolatzea zen, hurrengo urteko pala egutegian Euskal Herri mailan lekua izango duena. Euskal Herriko puntako palista onenak lehiatu dira Sakanako jokatu zen torneo honetan. Tamalez txapelak ez ziren Sakanako geratu, baina finalak ikustera hurbildu zirenek puntako ikuskizun eta partidaz gozatzeko aukera izan zuten.

Sakanako Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrikagoi-

I. Gure Pilota Pala Torneoko finalak

Kimuak: Eider-Julene **18** / Auritze-Olaia (Gure Pilota) **14**
 Kadeteak: Maddi-Maitena **25** / Luzia-lune (Gure Pilota) **20**
 Gazteak: Saio-Narrea **25** / Uxue-Aroa (Gure Pilota) **21**
 Promozioa: Murillo-Gabirondo **30** / Arrizabalaga-Parot (Gure Pilota) **27**
 Eliteak: Araiztegi-Bordagaray **24** / Garmendia-Ruiz de Larramendi **30**

tiak adierazi duenez "txapelketa bikaina izan da. Finaletan jendetza elkartu zen. Partida guztiak borrokatuak izan ziren eta primerako ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten bertan bildu zirenek. Txapelketa dotorea izan da eta helburu ezberdinak uztartu dira. Batetik, helduen mailako Euskal Herriko maila goreneko palistak elkartzea, eta, bestetik, txikien mailan eskolak bulkatzeko Sakanako egiten ari den lana agerian uztea.

Atletismoa

Maite Beregaña txapeldun Aiegin

Igandean jokatuak Aiegiko lasterketa irabazi zuen uhartearrak

Igandean II. Aiegiko Herri Lasterketa (7 km) jokatu zen, euripean jokatuak lasterketa. Lokatzarengatik ibilbidean zenbait aldaketa egin behar izan zituzten antolatzaileek. 123 korrikalarik parte hartu zuten, eta Diego Quintana iruindarrak (23:28) eta Maite Beregaña uhartearrak (29:49) irabazi zuten proba. Besteak beste, Jose Ramon Ramirez 27.a sailkatu zen (28:24)



Maite Beregaña. UTZITAKOIA

Irristaketa

Sakanako Irristaketa Topaketa atea joka

Ilbeltzaren 23an jokatu da, Olaztiko Kiroldegian

Sakanako Mankomunitateak Sakanako Irristaketa Topaketa antolatu du, Sakana Irristaketa Taldearen, Etxarri Aranazko eta Uhartarako irristaketa taldeen eta Olaztiko Udalen laguntzarekin. Hasiera batean larunbat honetan jokatzekoa zen, baina, azkenean, topaketa ilbeltzaren 23ra arte atzeratu dute. Olaztiko Erburua kiroldegian jokatu da, 17:00etatik aurrera. Irristaketaz gozatzeko jardunaldia izango da antolatuko dena, eta parte hartzeko deia egin dute.

Informatzeko edo izena emate-



Sakana taldeko bi irristalari.

ko Sakanako irristaketa taldeetako arduradunengana edo Mankeko Kirol Zerbitzura jo (98 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com).

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

15. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 1 - AIBARÉS 2
LAGUN ARTEA 4 - CASTILLO DE TIEBAS 0
 Denboraldian etxean lehen aldiz galdu egin zuen Etxarri. Hala ere, Etxarri dominatzen hasi zen eta 15. minutuan Xabatek gola sartu zuen, penaltiz. Baina Aibares hobeto aritu zen 2. zatian, Etxarri aukerak alperrik galtzen utzi zituen eta partida bukaeran bi gol sartu zituen Aibaresek, partida 1 eta 2 irabaziz. Aldiz, lakuntzarrek gol festa ederrarekin hasi zuten urtea, Castillo Tiebasi 4 eta 0 irabazita. Hasieratik bukaerara agindu zuen Lagunek. Pity, Salgado (2) eta Eneko izan ziren golegileak.

Sailkapena >>

- 1. Gares **34 p**
- 3. Etxarri Aranatz **30 p**
- 8. Lagun Artea **22 p**

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI ARANATZ - INFANZONES (Larunbatean, 15:45ean, Etxarri)
LAGUN ARTEA - BIDEZARRA (Igandean, 15:45ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa

15. JARDUNALDIA

BETI KOZKOR 0 - ALTSASU 2
 Ligan murgiltzea kostatu zitzaion hasieran Altsasuri, baina badirudi gutxinaka ligari tamaina hartzen ari diotela Alonso Davilaren eta Iñaki Mendozaren mutilek. Larunbatean, Lekunberrin, Bete Kozkor ongi aritu zen, baina 2. zatian Altsasuk nabarmen egin zuen hobera eta jokoa arduratu hartu zuen bere gain. Armazabalek eta Lopezek talde gorritxoaren golak sartu zituzten. Bete Kozkor saiatu zen baina Altsasuk onfi defendatu zuen eta 3 puntuak Sakanara ekarri zituen.

Sailkapena >>

- 1. Doneztebe **39 p**
- 9. Altsasu **18 p**

Asteburuko jardunaldia

LAGUNAK - ALTSASU (Igandean, 16:00etan, Barañainen)



Futbola

Oporren ondoren bueltan dira Kimuen Futbol 8 Topaketak

9. jardunaldia jokatu da igandean Altsasun eta Urdiainen

Eguberrietako atsedenaldiraren ondoren, Sakanako Mankomunitateak antolatutako Kimuen Futbol 8 Topaketan 9. jardunaldia jokatu da igande goizean Altsasun eta Urdiainen. Abenduaren 20an jokatu zen 8. jardunaldia, beraz, ia hilabeteko geldialdia izan dute topaketan parte hartzen ari diren neska-mutilek. Topaketan Sakanako 9 talde ari dira lehiatzen, eta ez da sailkapenik egiten, helburua ongi pasatzea baita.

Kimuen Futbol 8 Topaketan 9. jardunaldia

IGANDEAN, ALTSASUN

- 11:00etan** Kaixo - Mediolanum
- 11:00etan** Dantzaleku - Tipi Tapa
- 12:00etan** Sayas - Etxarri Aranatz

IGANDEAN, URDIAINEN

- 12:00etan** Urdiain - Lagun Artea
- Astedenean:** Sutegi

Areto futbola

Magna berriro garaipenaren xendara

Burelaren kontra garaipen garrantzitsua lortu du Magna Gurpeak

Aurreko jardunaldian Santiago Futsalen kontra launa berdindu eta gero, garaipenaren xendara itzuli da Magna Gurpea Xota. Ostiralean Lugon jokatuak partidaren Irurtzungo taldeak 2 eta 3 irabazi zion Burelari.

Burelaren kontrako partida zaila izan zen, irekia eta intentsitate handikoa. Bi taldeek lortu ahal izan zuten garaipena, baina, zorionez, hiru puntuak Nafarroara etorri ziren. Nabarmenezkoa da Rafa Usinek eta Asierrek egindako lana. Rafa Usinek bi gol sartu zituen eta min asko egin zion Burelari, eta Asierrek geldialdi bikainak egin zituen eta Burelaren asmoak batean baino gehiagotan zapuztu.

Rafa Usinek mustu zuen markagailua, baina minutu bat beranduago berdintzea lortu zuen Burelak. Bigarren zatia hasi eta berehala Rafa Usinek eta Eserverrik 1



eta 3 aurreratu zuten Magna Gurpea. Burelak gola sartu zuen, baina markagailua ez zen gehiago mugitu eta talde nafarrak 3 puntuak ekarri zituen. "Burelakoek izugarri estutu gintuzten. Baina partida bikaina jokatu genuen eta garaipena lortu genuen, merezimendu osoz" adierazi zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

Liderraren kontra

Inter Movistar da lehen mailako areto futboleko ligako liderra (52 puntu). Magna Gurpea laugarrena da (34 puntu). Hain zuzen ere Inter

Agurain txapeldun Altsasun



Sociedad Deportiva Altsasuak (SDA) I. Gabonetako Areto Futbol Torneo antolatu zuen abenduaren 26an Altsasun. Areto futboleko torneoan benjamin mailako neska-mutikoei hartu zuten parte, 8 urtekoek. 6 talde lehiatu ziren: Lakuntzako Lagun Artea, SD Altsasu-Seguros Sayas, Urdiain Kirol Elkarte, S.D. Altsasu-Arquitectura Flores, Olaztiko Sutegi Kirol Elkarte eta S.D. Salvatierra. Altsasu eta Salvatierra iritsi ziren finalera eta 0 eta 1 gailendu ziren aguraindarrak.

Haurretan Gazte Berriak garaile

Bestalde, ilbeltzaren 3an haurren mailako Gabonetako futbol torneo jokatu zen. Gazte Berriak, Berriozar, Altsasu eta Lagun Artea taldeak lehiatu ziren. Berriozar eta Gazte Berriak sailkatu ziren finalerako eta Gazte Berriak izan zen txapelduna. Altsasuk eta Lagun Artea hirugarren eta laugarren postua zehazteko partida jokatu zuten eta Altsasuk 1 eta 0 irabazi zion Lagun Artea.

Movistar liderra hartuko du Magna Gurpea Xotak larunbatean, 18:00etan, Iruñeko Anaitasunapabilioian. Burelaren kontra irabazi eta gero, animoa goian izango dute Imanol Arregiren mutikoei. Hori

eta gehiago beharko dute Inter Movistarren kontra aritzeko, baina talde berdea hazi egiten da ligako oilarren aurrean eta ea puntuak eusteko gai diren Magna Gurpea Xotakoak.

Atletismoa

665 korrikalari Altsasuko San Silbestrean

Sergio Garcia de Eulate eta Izaskun Beunza izan ziren azkarrenak

Urtea despeditzeko San Silbestre lasterketetan parte hartzera animatu ziren Sakanako korrikalariak. San Silbestrearen 37. edizioa jokatu zen urteko azken egunean Altsasun, Mario Memoriale izena hartu duen proban. Nafarroako probarik zaharrena den horretan aurreko urteko parte-hartzea mantendu zen. 2014ko edizioan 667 korrikalarik parte hartu zuten proban, eta aurtengoan 665 korrikalarik, horietatik 432 korrikalari proba nagusian eta gainontze-koak kategoriatik probatan.

Dantzaleku-Sakana klubak eta Sakana Triatloi Taldeak antolatutako proban ez zen aldaketarik egon. 18:00etan kategoriatik probak jokatu ziren, Altsasuko Foru plazaren inguruan, eta proba nagusia 19:00etan abiatu zen. Altsasun barna prestatutako zirkuituari hiru buelta eman zizkionten parte-hartzaileek, guztira 4,8 km osatuz. Sergio Garcia de Eulate altsasuarra gailendu zen (14:58), Raul Audikana olaztiarraren (15:03) eta Luis Alberto Duranen



Giro bikaina izan zen Altsasuko 37. edizioan, Mario Memorialean.

(15:08) aurretik. Emakumezkoetan Izaskun Beunzak joan den urteko garaipena errepikatu zuen (17:23). Lourdes Balza (18:32) izan zen bigarrena, eta Erkuden San Martin etxarriarra hirugarrena (18:48). Txapeladun txapela eta trofeoa

jaso zituzten, eta bigarrenak eta hirugarrenak trofeoa.

Aipatzekoa da proba hasi baino lehen minutu bateko isilunea gorde zela Daniel Ziordia zenaren omenez. Bera Altsasuko atletismo eskolako sustatzaileetako bat izan

Altsasuko San Silbestrea

Mutilak

1. Sergio Garcia de Eulate (Alts) 14:58
2. Raul Audikana (Olaz) 15:03
3. Luis Alberto Duran (Araia) 15:08
4. Iraitz Senar (Lak) 15:13
5. Javier Borrega (Alts) 15:27
6. Iban Gonzalez (Urd) 15:35
7. Aingeru Senar (Bak) 15:38
8. Iñaki Alvaro (Alts) 15:40
9. Gorka Martinez (Alts) 15:42
10. Iñigo Tobar (Alts) 15:42

Emakumeak

1. Izaskun Beunza (Olaz) 17:23
2. Lourdes Balza (Agurain) 18:32
3. Erkuden San Martin (Etx) 18:48
4. Ginesa Lopez (Alts) 19:37
5. Amaia Etxeberria (Zia) 19:46
6. Sheila Nuñez (Iruar) 19:46
7. Maria Goikoetxea (Etx) 20:05
8. Silvia Perez (Alts) 20:11
9. Andrea Aristu (Olaz) 20:16
10. Maite Zabaleta (Etx) 20:24

Aurre benjaminak:

1.Imanol Ramirez. 2.Alex Gonzalez. 3.Gabriel Gonzalez.

1.Ane Vegas.2.Nahia Arratibel. 3.Naiane Martinez.

Benjaminak:

1.Iker Nuncio. 2.Asier Apaolaza. 3.Manu Reparaz.

1.Ane Iturrioz. 2.Leire Imaz. 3.Ekiñe Agirre.

Kimuak:

1.Oier Agirre. 2.Ekain Razkin. 3.Oier Garcia. 1.Madi Lizarraga. 2.Hendi Haryam. 3.Saioa Zelaia.

Haurrak:

1.Ekhi Olabide. 2.Inhar Olabide. 3.Mikel Etxaiz.

1.Haizea Artola. 2.Irune Goikoetxea. 3.Paula Elizalde.

*Oharra: aurki San Silbestreko klasifikazio osoa ikusgai egonen da www.dantzalekusakana.com web gunean.

Egoitz Aldaz eta Miren Lezea garaile Olaztin

Urteko azken egunean 14. San Silbestrea jokatu zen Olaztin. Benjaminen, kimuen, gazteen eta senioen mailako lasterketak jokatu

ziren, giro bikainean. Senior mailan, gizonezkoetan Egoitz Aldaz izan zen txapeladuna, Ruben Mendieta- ren eta Ekhi Imazen aurretik. Emakumezkoetan, aldiz, Miren Lezea gailendu zen. Vanessa Galbete eta Amaia Aristuren aurretik.

zen 70. hamarkadan eta Dantzaleku Sakana klubeko bazkidea zen,

lehen zenbakiduna.

Txirrindularitza



J. Ramon Garcia izan zen azkarrena Altsasutik Urbasara igotzen. GUZMAN LOBO

82 txirrindularik despeditu zuten urtea Urbasan

Sociedad Deportiva Alsasuak antolatutako San Silbestre bizikleta martxaren 33. edizioan parte hartu zuten

Altsasuko San Silbestre lasterketaren aurretik, 15:30ean, 82 txirrindulari euren bizikletara igo ziren eta Sociedad Deportiva Alsasuak antolatutako 33. San Silbestre bizikleta Martxan-Urbasako Igoeran hartu zuten parte. Gehienenasmoa

ongi pasatzea eta urtea bizikletan agurtzea zen, baina lehizera eta dena ematera atera zenik ere egon zen. Azkarrena J. Ramon Garcia izan zen, Jon Zeberioaren eta Hugo Garnicaren aurretik. Urbasan salda beroa hartzeko aukera izan zuten guztiek eta ondoren, Altsasura jaitzita, sari banaketa egin zen Sociedad Deportiva Alsasua tabernan.

Mendia



PEDRO GONZALEZ

Ongi etorri 2016, Beriainen. Urtero moduan, Sakanako Mendizaleak taldeak deituta, makina bat mendizalek jo zuten Errege Egunean Beriainera, urteari ongi etorria ematera. Urteko lehen elurra zapatzeko aukera izan zuten.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

Erabiltzaile onenak

FLORES S.L.
Nafarroako berezko txistorrak izan bat du
Txistor ekologikoa

Uztuzabarr industrialdea - Rlf. - Faxa: 948 460 499 61063211



Urabaienen margo inpresionistak lortian



Ilbeltzaren 28ra arte, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean

Jose Maria Urabaien. In Memoriam. Aitaren margo-lanez osatutako erakusketari izenburu hori eman diote Beatriz eta Hugo Urabaien Canovasek, eta azken horren bikote Yoli Otxoa-Aizpuruak. Urabaien margolaria Garesen jaio zen. Gerra ondoren Parisera emigratu zuen eta biltegi batean lan egiten hasi zen. Montmartrean, margolarien auzora, arratsaldeetan egiten zituen bisitekin pinturarekin zaletu zen. Autodidakta, akuarelarekin hasi bazen ere, berehala jo zuen oliora. Gares-

ra bueltatu eta zaletasunari eutsi zion. Iktusak gorputza erdia geldiarazi bazion ere, Urabaienek margotzen segitu zuen.

Bere jaioterriaz maitemindurik, Garesko paisaiak mihisetara askotan eraman zituen. Haietako batzuk ikusgai daude lortian, garai bateko uzta bilketako eta saskigileen koadroekin batera. Erakusketa osatzen duten gainontzeko koadroetan natura-hilek eta ur masek (ibaia, lakuak eta itsaso) aparteko presentzia dute. Batean San Pedro zelaia ageri da ere. Azken horiek argazkietan oinarrituta egin zituen. Inpresionismotik edanez, koadro koloretsuak osatu zituen. Urabaienek 200 bat mihisez osatutako bilduma

utzi zuen eta garai ezberdinetako lanekin osatu dute ondorengoek erakusketa. Bera bizi zela sorterrian eta Olkozko dorrean erakutsi zuen bere obra.

Mihiseez aparte Urabaienek objektuak ere margotu zituen. "Edozein euskarri balio zion". Sorterria zeharkatzen zuten Done Jakue erromesek erabilitako kalabazak, esaterako. Berak kalabazak hustu eta gero margotu egiten zituen. Urabaienen sormenaren ikur eta bere inguruan ezagun bihurtu ziren kalabaza horiek. Baina erakusketan badira pitxer handi, botil edo harri margotuak ere ikusgai. Erakusketa bere iloba Paularen bi koadrotxorekin osatzen da.

Trikitiarendako jaialdia

Ilbeltzaren 16an, larunbatean, 17:30ean Lesakako Harriondoa aretoan

Nafarroako II. Trikiti Jaialdia hartuko du bihar Lesakak. Instrumentuari Nafarroan pizgarria eskaintzeko asmoz antolatu zuten jaialdia, estreinako Altsasu izan zuena. Nafarroako Trikiti Elkarteak kide Patxi Agirre, Lohitzune Berastegi eta beste hainbat izan dira jaialdia antolatzen aritu direnak. Nafarroan trikitiarendako erreferentziatzeko egun bat bihurtu nahi dute jaialdia. Agirrek esan digunez, heldu den urtean Sakanara bueltatzeko aukerak daude. Sarrera apur batzuk saltzeko gelditzen dira eta horiek leihatilan eskura-



Egitaraua

Iñaki Mendinueta eta Irune Agirre
Kristina eta Amaia
Epelde eta Lutxurdio
Agus Barandiaran (Korrontzi) eta

Xabier Berasaluze (Leturia)
Edurne Iturbe eta Oihana Irastorza
Jon Ostolaza eta Arnó
Gari eta Iñaki
Aurkezleak: Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin

tu daitezke. Jaialdiaren ondoren, joan den urtean bezala, afaria iza-

nen da (nafarroakotrikitixaelkarte@gmail.com).

Gazte altsasuarren aisialdia islatzen duten argazkiak

Horiek nahi ditu Altsasuko Gazteria Zerbitzuak antolatu duen argazki lehiaketan

Altsasuko gazteek herriko gazteen aisialdiaren inguruan duten ikuspuntua argazkietan jaso eta, gero, argazki lehiaketara aurkeztea. Proposamen horrekin zabaldu du urtea Altsasuko Udalaren Gazteria Zerbitzuak. Lehiaketa 12 eta 30 urte bitarteko gazte altsasuarrei zuzenduta dago. Bakarka edo taldeka parte hartu dezakete. Hala ere, gehienez hiru argazki aurkeztu daitezke (bakoitza bere izenburuarekin eta azalpenarekin). Argazkiak edozein teknika erabilita egin daitezke. Bi maila daude: 12-17 urte 18-30 urte. Bakoitzean, saria 100 euroko argazki materiala edota ikus-entzunezko materiala izanen da.

Argazkiak sinadurarik gabe eta egilea identifikatzea ahalbidetuko duen inolako arrastorik gabe aurkeztu beharko dira. Argazki sexistak, xenofoboak edo jarra oldarkorrek eragiten duten argazkirik ez dute onartuko. Epaimahaiaren esku geratuko da lehiaketaren helburuekin bat ez datozen lanak baztertzera.

Epea

Argazkiak paperean inprimatuak



(13x18 cm gutxieneko tamaina eta 20x28 gehienezkoa), CD batean, USB batean edo bestelako euskarritan aurkeztu daitezke, plika sistema erabiliz beti ere. Kartazal handian Altsasuko Gaztegunearen I. Argazki-Lehiaketa leloa idatzi beharko da. Txikiaren barruan, berriz, egilearen izena, abizenak, NANA, helbidea, telefonoa eta e-posta azaldu beharko dira.

Lanak apirilaren 10era bitartean aurkeztu daitezke, honako helbidean: Altsasuko Udala, Gazte Saila, Gartzia Ximenez, 36, 31800 Altsasu, edota Gaztegunearan bertan. Informazio gehiagoko jo helbide hauetara: gazteria@altsasu.net edo intxostiapunta@gmail.com. Sari banaketa apirilaren 16an egingen da, 18:00etan.

Batukada eta antzerki tailerrak Arakilen

Izena emateko epea hilaren 22ra arte dago zabalik. Hots egin 948 500 101 edo 634 584 226 telefonoetara

Arakilgo Udalak ilbeltza eta Amaiatza bitarteko kultur ikastaroen eskaintza ezagutarazi du: batukada eta antzerkia. Bi ikastaroak ere Ihabarren izanen dira. Perkusio ikastaroa asteartean izanen da, 19:30etik 21:30era, eta Oskar Estanga izanen da irakaslea. Batukada ikastaroa hilaren 19an hasiko da. Antzerki tailerra, berriz, Jon Barbarinek emanen du eta izena ematen dutenek zehazten duten egun eta orduan izanen da. Arakilen erroldatutako pertsonen 70 euro ordaindu beharko dute ikastaro batean izena ematerakoan. Ibarrean erroldatuak ez daudenak, berriz, 90.



Dispertsioaren zama arintzeko ariketa



Etxarriko Etxerat-ek eta Sarek Zama doinuz arinduz izenburuko musika jaialdia antolatu zuten igandean. Emanaldi bikotzerako sarrera guztiak alde aurretik salduak, ikusleek "kontzertu-ikuskitzuna itzela bizitzeko" aukera izan zuten. Dispertsioaren kontakizuna bideo eszena laburren bidez irudikatu zen: Hendaiatik Parisera trenez bisita batera doanaren kontakizuna. Bidaiak zortzi geldialdi izan zituen, musikariak adina: Ruper Ordorika, Naroa Gaintza, Tapia eta Leturia, Mainer Ansa (Tximeleta), Oreka TX, Su Ta Gar, Vendetta eta Esne Beltza. +www.guaixe.eus

Bidelapurren abenturak emandako saria

Iruñeko Udalaren XXV. egile berriendako literatura lehiaketako sariak abenduaren 23an banatu ziren. 2014an lehiaketarik izan ez zenez, "bigarren urtez" jarraian, sari banaketan izan zen Izaskun Etxeberría Zufiaurre. Izan ere, 2013an ere lehiaketa berean altsasuarrak narrazio laburren atalean, atzera ere, aipamena eskuratu zuen. Etxeberríari oraingoan aitortza *Poltsa edo bizi* narrazioak eman dio. Egileak azaldu digunez, "XVIII. mendeko Burundan kokaturiko bidelapurren abenturazko istorio laburra da, arina eta freskoa".

Etxeberríak aitortu digunez, "lehenengo unean desilusio txiki bat hartu nuen bigarren aldiz atarian gelditua nintzelako; distantziatik, ordea, eta, batez ere, epaimahaikideen iruzkinak ezagutu eta gero, bai, kontentu nago". Izan ere, aitortza bera aurkeztutako narrazioaren kalitatea ere bada, "neurri batean, behintzat".

Idazle Eskola

Sortzaileak jakinarazi digunez, "bai idazteko bai irakurtzeko, narrazioa dut literatura-eremu eroso eta gustukoena". Narrazio laburra, zehaztu digu, "luzea beste kontu bat da!" Beste literatura generoek tentatzen ote duten galdetuta, Etxeberríak esan digunez, "antzerkiari ez nioke aterik itxi-



ko, baina poesiarako ez daukat dohainik".

Hamarkada hasieran despeditu zuen Bergarako Idazle Eskolako graduondoa eta ordutik Etxeberríaren adierazpidea literatura da. Berak dioenez, "orduak ohar-

tu bainintzen, edo ohartarazi nindutela, banuela idazteko nola baitaiteko sena eta estilo berezia". Etxeberríak gaineratu duenez, "beti izan naiz irakurlea, izugarri gustatu zait beti irakurtzea niretako plazera handia baita; Idazle

Eskolatik pasatzea irakurtzetik idaztera dagoen saltoan bultzada izan da".

Urratsa

Idazle Eskolako zuzendaria den Tere Irastortzak eta Castillo Suarez olerkariak akuilaturik lehiaketetan aurkezteko urratsa egin zuen. Aurretik ere Etxeberríak bi literatura sari irabaziak ditu. Biak ere 2011n: Berribeiteko Udalak antolatutako III. narrazio erotiko lehiaketa (*Lepoa erakusteko eskatu zion* ipuina) eta Aguraingo eskualdeko II. narrazio lehiaketa (*Negukoa ematen zuen udazkeneko gau hartan* ipuina).

Bere idatziak aldizkari, blog eta bestelakoetan argitaratuak ikusi ditugu. Aski edo libururik gabe ez dago idazlerik? "Ez dut nire burua idazletzat, inola ere, ez naiz idazlea, hitz potoloa da hori niretako; dena den, badaukat une honetan egitasmo bat esku artean eta gauzatuz gero ikusiko genuke..."

Literaturarekin lotutako bestelako jardunak ere landu ditu Etxeberríak: "adibidez, Altsasuko Testu Bazka irakurle-kluba gidatu nuen, oso gustura egin ere eta, nahiz literatura ez izan, Guaixe astekarian eleberrien inguruko iruzkinak idatzi nituen eta gaur egun, berriro ere, Nafarroako Hitzan hilean behineko kolaborazioari ekingo diot".

Nanoipuinak sortzeko gonbitea

Lehiaketan euskaltegiako ikasleek eta Mintzakide programako kideek parte hartu dezakete

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatu duen literatura lehiaketan euskalduntzen ari den edo Mintzakide programan parte hartzen ari den edozein sakandarrek parte hartu dezake. Banakako lanak dira onartuko direnak, egile bakoitzeko bakarra. Ipuin bakoitzak,

gehienez, 150 hitz izan beharko ditu. Jakina, euskaraz idatziak izan beharko dute. Araudian jasodenez, ipuinetan Sakanari buruzko erreferenziaren bat sartzea ezinbestekoa da (tokiak, gertakari historikoak...).

Lehiaketak aurrera egiteko gutxienez 10 lan aurkeztu beharko dira; bestela, bertan behera geldituko da. Lanak martxoaren 18ra arte aurkeztu daitezke, bai Itsasi euskaltegian baita Mank-en

egoitzan. Plika sistema erabili daiteke (ipuinen bi kopia) edo bestela pdf formatuan euskara1@sakana-mank.com helbidera bidali daiteke. Lehiaketak hiru maila izanen ditu: 1. mailan A1 eta A2 mailako ikasleek har dezakete parte; 2. mailan, berriz, B1 mailako ikasleek eta 3. maila B2 eta C1 mailako ikasleendako da. Mintzakideek zein mailatan lehiatuko diren jakinarazi behar dute.



Plutonerako abentura bidai

Larunbatean, 17:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean

Sakanako sortzaileei plaza eskaintzeko asmoz sortutako Agertokiye programazioaren barruan, bihar Zoila Berastegi Mariñelarenaren txanda izanen da. Arbizuarrak idatzi eta Iruñeko Udalaren haurrendako antzerki testuen lehiaketa irabazi zuen *Pluton: hor konpon marianton!* antzezlanarekin gozatzeko aukera izanen dute txikiak.

Kultur talka bat eta ingurumena dira antzezlaneko gaiak. Ama lurraren natura-baliabideak



etengabe ustiatzen direla eta haiek agortzen ari direla ikusirik, Xerafin eta Katixa astronautei beste planeta batzuetan ura bilatzeko beharra jarri diete. Bilaketa misioan hainbat abentura biziko dituzte protagonistek.

Pailazo bikote baten hurrengo

Domekan, 17:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Marie de Jongh eta Tartean konpainien eskutik heldu da Altsasura *Kibubu* antzezlan. Sebas eta Cocó pailazoak ditu protagonista. Arrakasta gutxi baina ilusio handiko pailazoak dira. Hurrengo ikuskizunean benetan arrakasta izateko benetak gorila batsartunahidu ikuskizunean Sebasek. Ongi hezieta ikuskizuneko atalak erakutsiz gero arrakasta ziurtatuta duela uste du. Baina bipailazoek ahaztukoez duten lezioa ikasiko dute. Guztia, *Kibubu* antzezlanean.

Izerberg doinuak

Uurbildik datorren taldea da Izeberg. 2013an Mendeku Itxua, Hotzikara eta Odolaren mintzoa taldeetan aritutako lau musikari elkartu ziren. 2014ko maiatzerako beraiek ekoiztutako diskoa kalean zuten, *Azalera*. Haren aurkezpen bira despeditzeko geldialdia egingen dute Olatzagutian. Rock doinuak eskainiko dituzte Ixak Arrutik (ahotsa eta gitarra), Antton Aranburuk (gitarra), Beñat Urteagak (baxua) eta Jokin Irastortzak (bateria). Bihar Olatzagutiako Maisuenea gaztetxean dago hitzordua jarrita.

Non erabili

NEREA ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

MARTXUETA

IRURTZUN

% 5eko deskontua irakurtzeko liburuetan.

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA

ALTSASU

%5eko deskontua osagarrietan.

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua depilazioetan.

HOSTO GORRI ALTZARIAK

ETXARRI ARANATZ

Dendako produktuetan % 5eko deskontua.

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI ARANATZ

%15eko deskontua graduatuetan eta %5 eguzkitakotan.

ZELANDI KIROLDEGIA

ALTSASU

Lehenengo matrikula doan.

IZARA

ALTSASU

50€ baino gehiagoko erosketetan % 5eko deskontu zuzena, enkarguetan izan ezik.

TXIKITXO

ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabilitzeko.

NAMASTE YOGA

ALTSASU

Bi yoga klase doan.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 96%	euria: 98%	euria: 28%	euria: 55%	euria: 48%	euria: 30%	euria: 18%
Min: 2 Max: 4	Min: 1 Max: 4	Min: -3 Max: 6	Min: -1 Max: 4	Min: -1 Max: 5	Min: -2 Max: 5	Min: -2 Max: 7

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	16.5	-1	36.2
Etxarri A.	15.8	-3.6	17.1
Altsasu	16.5	-2.5	28.1
Aralar	8.6	-1.82	37.3
Urbasa	12.5	-4	34.2

: ilargiaren aldia >>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
16	24	1	8

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

ILBELTZEKO SARIAK:

1. SARIA:
 Ekainberri: 2 sarrera
 Artazako Kanpina: %10eko deskontua
 Lacturale: esneki lotea
 Artium museoa: 2 sarrera
 Gaztezulo: 3 hilabetez doan
 Magna Gurpea: 2 sarrera


2.,3. ETA 4. SARIA:
 Ekainberri: 2 sarrera
 Artazako Kanpina: %10
 Lacturale: esneki lotea
 Artium museoa: 2 sarrera
 Gaztezulo: 3 hilabetez doan
 Magna Gurpea: 2 sarrera

>> 11 galdera

Eduardo Huarte

Argazkilaria

Testua: Maialen Huarte Arano



piztu hezkuntza

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

- 1. Lehenengo 10 onenen artean geratu zara Conocer Navarra argazki lehiaketan. Zer du berezia zure argazkiak?**

Enkoadraketa eta errebelatua egoikiak dira eta modu xume eta atsegin batean irudikatzen du neguko ohiko egun bat: elurra eta bisutsa, eta zerua berun-kolorekoa. Tokia, gainera, berez da ederra, bai ermita bera zein ingurunea ere. Lehiaketak eskatzen zituenak ongi jasoak geratu dira irudian: Nafarroaren ondarea zein ingurua.
- 2. Neguko irudia da. Noiz atera zenuen argazkia?**

2015eko otsailaren 21eko da argazkia. Egun hotz horietako bat zen, elur-haizea zebilen eta ia zailena Lizarragako tunelera iristea izan zen. Elur-raketekin iritsi nintzen.
- 3. Teknika zehatzik ba al du?**

Ezer berezirik ez, egia esan. Zailenaz goen eguraldiarekin bertaraino iritsi eta une horretan han egon ahal izatea izan zen. Bitxikeria gisara esanen dut, 35 urte dituen eskuzko objektibo batekin egin nuela, kamera digital bati jarrita. Maitasun handiz egindako argazkia da eta prozesatze zainduarekin.
- 4. Nafarroako Gobernuaren turismo karteletan ikusi ahal izan dugu zure argazkia. Laudorio bat izan da zuretzako?**

Laudorioa bainoago esanen nuke nire lanaren goraiapamen bat izan dela, bide onetik noan seinale. Argazkilaritzak esfortzua eta dedikazioa eskatzen ditu eta lan horren guztiaren emaitza da. Niretzako

argazkiak ateratzea afizioa da eta, alde horretatik, argazkilaritza kontrolatzen duen jendearengandik errekonozimendua jasotzeko asko adierazten du.

- 5. Non egiten dituzu zure argazkirik kuttunenak?**

Inguru oso anitz batean bizi gara eta bertatik bertara ditugu Aralar, Urbasa, Andia... Horrez aparte, Sakanak dituen txoko guztiak ere bai: harrizko etxeak, larreak, loreak, zuhaitzak, ermitak... Aukera handiak daude argazkilaritza praktikan jartzeko etxetik gertu.
- 6. Nondik datorkizu afizioa?**

14 urte nituenetik, eta 58 ditut orain. Izan nuen lehen lanarekin ekin nion argazkilaritzarako materiala erosteari. Aitak beti esaten zuen nire soldatak materiala erosteko erabiltzen nituela, eta, hala da, ez zekien azen soldata bakarrekin batzuetan ez nuela nahikoa izaten. Ez da afizio merkea, material ona erosten baldin bada behintzat. Urte batzutan abandonatu xamar utzi nuen, harik eta, alabak kamera digitala oparituzidan arte.
- 7. Batez ere paisaiak dituzu gustuko, zergatik?**

Erretratua gustatzen zitzaidan hasieran, baina gero paisaiekin hasi nintzen eta orain egiten ditudan argazki horiek diapositiba gisa txertatzen ditut. Zergatik paisaiak? Ikusi nuen film batek zeri-kusi handia du, *La sal de la Tierra*. Sebastiao Salgado argazkilariaz eta ingurumenak eskaintzen digun guztiaz hitz egiten du.

- 8. Zer fokatzen duzu gustura?**

Paisaia zabalak angelu irekiekin. Zailenak dira, objektibo angularraren elementu gehiago jasotzeko aukera dagoelako eta erakargarritasuna galtzen duelako erraz. "Gutxiago gehiago da" esaera erabat lotuta dago argazkiarekin, geroz eta elementu gutxiago izan geroz eta ederragoa da irudia.
- 9. Izan du zure beste argazkiren batek halako oihartzunik?**

Arakilgo Udalak antolatzen duen udazkeneko lehiaketara bidali nuen argazkia orain gutxi. Irabaztea lortu nuen eta ilusio handia jaso nuen. Iaz, gainera, Conocer Navarra lehiaketako paisaien ataleko finalista izan nintzen. Bardea Xuriko argazkia izan zen, Argedasen egindakoa. Gaez egin nuen; izarren nolabaiteko mugimendua irudikatu nahi genuen. Guaixeko lehiaketan Beriain mendiko irudi batekin ere aipamena izan nuen.
- 10. Zer eskaintzen dizu argazkilaritzak?**

Gustatzen zaidan zer bait egiteagatik poztasuna eta asebate ahal izatea. Eta argazkiak egiten duen jendea ezagutzea eta afizio bera konpartitzen duen jendearen artzea.
- 11. Zer behar da argazki on bat atera ahal izateko?**

Dedikazioa, maiztasuna eta esfortzua. Argazkilaritza ezagutzea ezinbestekoa da, zein diziplina dauden ezagutzea. Ondoren, norberari zer gustatuko litzaiokeen definitzea eta lanean hastea, argazkiekin ekitela. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)